



2012-03-19
ASTELEHENA
358. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Kolizio momentua bizi dugu eta kolapsora ez dago pauso handia"

Joseba Azkarraga | Soziologoa | 7

Bergarako musika bandari esker Lokatzak badu ereserkia | 30



'A capella' lehiaketa irabazi dute Ganbarakoek | 31



Arrasateko eta Montblanceko doinuak nahastuta Amaian | 29

Debagoieneko erraien gaineko irudiak Eskoriatzan

Espeleologoek azken bi urteotako lanen berri eman dute | 5



Arrikutz barruan. | SERGIO LABURU

Maliko umeendako janari bilketa egingo dute

Oñatiko Misio Taldeak egingo du bilketa, gaurtik | 18



GATZATUA EGITEN

Zapatuan Arrasaten egin zuten Artzain egunean ardia izan zen protagonista, nahiz eta Seber Altuben ardirik egon ez. Artzainek gazta saldu zuten, Maximo Inurrategi artileaz ibili zen lanean, hamabi elkarte gastronomikok ardi okelaz gisatu lehiaketa egin zuten eta Batis Otaegi gatzatua nola egin azaltzen ibili zen. Hala, herritarrek –argazkian– gatzatua egin ahal izan zuten. | 12

Zapatu eguerdian, Seber Altuben, gaztea –inguruan ikusmin handiaz– gatzatua egiteko edalontzira legarra botatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Erabateko babesaz eratu da Tokikom, euskarazko toki hedabideen enpresa

Zapatuan egin zuten Tokikomen batzar eraikitzailea Eskoriatzan, eta Euskal Herriko hemeretzi tokiko hedabidetako ordezkariak aho batez onartu zituzten estatutuak. Tokiko telebisten artean publizitatea eta teknologia bezalako esparru komunak kudeatzeko asmoz jaio da Tokikom. | 4

Aretxabaletak 89. minutuan egin zion gola Aloñari | 22

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ATERA IRRIBARREA

gahir fisioterapia osteopatia

Goiena klubeko txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera

"Etxeko lanak hemen zelan egiten diren ikasi dugu"

- ▶ Kultura arteko Formazioa jaso dute 9 etorkinek
- ▶ Hilabetekopraktikaldia egingo dute Aretxabaletan

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA
Touria eta Fariza aretxabaletar marokoarrak pozik daude: etxea zelan garbitzen den ikasi dute eta, laster, ordaindutako praktikak egingo dituzte Aretxabaletako familia batzuen etxean. Eurak "poz-pozik" daude: "Etxea garbitzea, garbi edukitzea gustatzen zaigu. Bainugelak, logelak, sala... zelan garbitu behar ditugun ikasi dugu", esaten digute.

Touriak eta Farizak bezala, horixe bera egiten ikasi dute Aretxabaletan bizi diren beste zortzi emakume etorkinek –Sahara, Peru, Bolivia, Kolonia eta Kubako emakumeak–, eta Debaioenean jaiotako beste bik. Kultura arteko Formazioa izeneko bi hileko ikastaroa bukatu zuten joan den egunean, ebaluazioa jaso zuten –denek oso ondo bete dute kurtsoa– eta orain hurrengo, programaren bigarren zatia egingo dute: ordaindutako hila-beteko praktikak 5 hilabete arteko umeak dituzten Aretxabaletako familiekin. Ordaindu, programak ordainduko dizkie; familiendako guztiz doako zerbitzua izango da.

Ekimen hori herritarrek sortutakoa da eta Udalak eta Caritasek diruz lagundutakoa. Helburu nagusia hau da: emakume etorkinei lan mundura sartzen laguntzea. Horrez gain, beste helburu batzuk daude: garbiketa zerbitzua estandarizatzea eta parte-hartzaileek kalitatezko etxe-garbiketa zerbitzua emateko gaitasuna garatu dezatela; horrez gain, emakumeon lana erakustea.

Egurrezko lurra garbitzen

Etxea zelan garbitu behar den jakiteko ikastaroa egin behar ote da, baina? Ez... baina bai. Horrekin konturatu zen Kultura arteko Formazio programaren sortzailea, Aretxabaletara ezkonduko Paloma Martinez mexikarra.

DATUAK

3

EGUN

Hemendik hiru egunera, hilaren 22an, ikastaroaren itxiera-ekitaldia egingo dute eta ospakizun batekin borobilduko dute amaiera.

12

FAMILIA

Herriko 12 familiak eskatu dute hilabeteko doako garbiketa zerbitzua. Bederatzi emakumeok 12 eskaerak beteko dituzte.

ESANAK

"Norberak bere herriko ohiturak ekartzen ditu eta, lanean, gauza batzuek kaleratzea ekar dezakete"

"Emakumeok lan munduan sartu nahi ditugu, eta emakumeon lana erakutsi"

PALOMA MARTINEZ | ARDURADUNA

Izan ere, emakume etorkinekin harremanetan, arazo hau antzeman zuen: "Emakume etorkin askok etxeak-eta garbitzen lana topatzen zuten, baina askok galdu egiten zuten". Eta konturatu zen beste herrialde batzuetako ohituren eta hemengo arteko desberdintasuna izan zitekeela arrazoiatuko bat. Horregatik, ikastaroan, garbiketara "hemen zelan egiten den" erakutsi diete emakumeoi.

Martinezek bere esperientzia bat kontatzen digu hori azaltzeko: "Hona etorri nintzanean ikusi nuen lehenengo aldiz egurrezko lur bat. Hasieran, neure etxean moduan garbitzen nuen: zorugarbigailua eta ura hartu eta garbitu; senarrak esan zidan arte, horrela jarraituz gero, lurzoru berria beharko genuela".

Kultura desberdintasun horiek txikikeriak izan daitezke; baina, lanpostu baten kasuan, kontraste horiek kaleratzea eragin dezakete. Adibide gehiago ematen ditu Martinezek: "Saharan, ez dituzte hemen bezalako etxebizitzak; bestalde, ur gutxi dute eta ura oso baliotsua da. Saharako emakume batekin garaje bat garbitzen, ikusi nuen baldean oso ur gutxi zuela, eta erabiltako trapuak ur horretan garbitzen zituela. Urak txokolatea zirudien. Esan nion, hemen, ura aldatu egin behar dela".

Beste detaile batzuk daude: esaterako, Latinoamerikan, etxean berogailua izatea ez da batere ohikoa, eta etxea aireztatzeko ohiturak oso desberdinak dira; bestalde, material edo azalera bakoitzak bere produktu eta fibra egokia du, hondatu ez dadin...

Hori guztia erakutsi diete bederatzi emakume horiei: "Hemen zelan jokatzen den azaldu, eta euren herrian zelan egiten den galdetu diegu. Esan diegu modu bat ez dela bestea baino hobea; desberdinak direla, soilik. Baina,



Jesarrita, Touria (Maroko), Fariza (Maroko) eta Luz Caridad (Kuba); zutik, antolatzaileak,

hemen lan egin gura badute, hemengo ohiturak ikasi behar dituztela", esaten du Paloma Martinezek.

Puntueltasuna

Bestelako eduki asko izan ditu ikastaroak, Paloma Martinezek laburtzen duen moduan: "Asko azpimarratu dugu lan-kultura: puntual izateak eta konpromisoak duten balioa, gizonezkoenganako eta emakumezkoenganako tratu... Kultura aldetik desberdinak garena konturatu ginen: hemen puntuala izatea funtsezkoa den bezala, beste kultura batzuetan ez; edo egia esatea munduko leku guztietan ez da gauza bera; edo bai edo ez esatea, hori ere aldatu egiten da kulturaren arabera".

Genero ikuspuntua izan da beste eduki garrantzitsu bat; horrez gain, gatzelaniazko eskola intentsiboak jaso dituzte bi emakumek.

Ikasgaiak zeharkako moduan eman dituzte: banan-banako tuto-

retzaren bidez, etxeko lanak bidalita... Emakume bakoitzaren lana berarekin bakarrik komentatu eta landu du Auria Iriarte tutoreak, etorkinekin eta bazterketa sozial arriskuan dauden pertsonekin lan egiten adituak. Bera ere borondatez inplikatu zen programarekin. Banan-banan egindako tutoretza saioetan komentatzen ziren ikasle bakoitzarekin bere aurrerapenak, zertan hobetu behar zuten esaten zitzaion...

"Elkartasunerako joera dugu"

Jende asko inplikatu da Kultura arteko Formazio programan; gehienek musu-truk egin dute lan guztia edo gehiena. Izan ere, Martinezek esaten duenez, "lortutako finantzazioarekin, ozta-ozta gastuak estali eta praktikak ordaintzeko adina" dute. Finantzaketa Aretxabaletako Udaletik etorri da, integrazioa helburutzat zuten programei laguntzeko diru partidatik. Horrekin nahikoa

"Kulturen festa gurako nuke herrian"

Etorkinen eta, bereziki, emakume etorkinen inguruko kezka bultzatuta okurritu zitzaion Paloma Martinezek ikastaroaren ideia. Izan ere, aurretik *Hemen* aldizkaria egiten zuten, hainbat hizkuntzatan eta, hori ere, etorkinei bereziki zuzenduta. "Zenbait emakume etorkinekin harremanetan jarri nintzen, eta aldizkariarekin inplikatu gura izan nituen, baina konturatu nintzen euren eta nire egoera ez zirela berberak, eta emakume haiek behar zutena lan egitea zela, ahalik eta lasterren", esaten du Palomak. Bi proiektuak borondatezkoak zirenez, biotarako astirik ez, eta Kultura arteko Formazioari "dena eman behar" ziola iruditu zitzaion.

Prestakuntza programa berritzaile hori bukatu da, baina oraingo, bakarrik; izan ere, arrakasta ikusita, Paloma Martinezek "errepikatu" gura du esperientzia hori. Etorkinen eta kultura aberastasunaren gaineko asmo gehiago ere baditu, eta "ametsa" ere bai: "Aretxabaletan kulturen festa egitea", herrialde askotako jendearekin, "erkidegoen gastronomia jaia egiten den bezala".

Oraingo, baina, emakumeon praktikarekin eta hilaren 22an, oraingo egunean egingo duten ikasturte itxiera ekitalditxoarekin pentsatzen dabil.



Auria eta Paloma. | LEIRE KORTABARRIA

izango ez zutela ikusita, Carita-sengana jo zuten antolatzaileek, eta elizaren erakunde horrek beste zati bat ipini du.

Antolatzaileen poza bi aldekoa da: batetik, ikastaroa bera eta formazio tekniko "oso ondo" joan dira, eta emakume guztiek oso emaitza onak lortu dituzte; eta, bestetik, giza-esperientzia bikaina izan delako, Paloma Martinezek dioten moduan: "Emakumeok aurrera zelan egiten zuten ikusi dugu, eta ikasleek benetako taldea osatzen zelan joaten ziren: euren artean benetako laguntasuna sortu da, eta gaur egun, harremana dute". Hori azpimarratuz, Martinezen iritziz, "emakumeon artean elkartasuna sortzen da; emakumeok elkartasunerako joera dugu".

Esperientzia polita izan da ere antolatzaileondako eta irakasleondako: "Ilusio handia egin ziren proiekturako eurak kontuan hartu izana. Eman behar zituzten eskolak gogo handiz prestatu zituzten, eta oso pozik daude

emakumeekin. Ondorioz, irakasleok ere boterea hartu dute".

Irakasleok denetarikojatorrikoak izan dira: Euskal Herrian jaiotakoak zein kanpotik etorritakoak. Hori beste balio bat izan da formazio programarako: adibidez, Lan-Kultura saioak hemen 20 urte daroan koloniar batek eman ditu; Garbiketa Teknika saioak, Arrasaten bizi den emakume marokoar batek; eta aretxabaletar batek ere eman ditu eskolak. Martinezen "ezinbestekoa" iruditzen zitzaion Lan-Kultura kanpotik etorritako emakume batek erakustea, "bertako batek jakintzat emango zituzkeelako gauza asko; kanpotarrak, aldiz, kultura-aldaketaren esperientzia bizi izan du".

Lanerako atea, zabalik

Ebaluazioa bukatuta, orain praktikak egitea falta da. Horretarako, familiek izena ematea ezinbestekoa zen. Deialdia egiteko, komunikabideetara jo zuten, eta, batik bat, emaginarengana; hark emakumeekin.

ten zien umea izan behar zuter familiei aukera horren berri Erantzunak harritu egin ditu antolatzaileak: "Nik ez neukan zalantzarik familiak gertu egongo zirela; baina komentarioak heldu zitzaizkidan, Aretxabaleta herritxia ez ote zen... Baina 12 familia daukagu 9 emakumerendako Dei bakoitzarekin, Carmen, lan kidea, hunkitu egiten zen. Telefnoz esaten genien nazionalitate askoko emakumeak zeudela, eta inork ez zigun trabarik ipini, pertsona zintzoa eta saiaturia bazen berdin zitzaiela nongoa izan".

Ume jaioberriak dituzter familiengana zuzendu dira, antolatzaileen ustez, hasierako hila bete horietan egoten delako ama izan den emakume hori "berezi ki laguntza premian" eta etxeko antolaketa "hankaz gora" geratzer delako. Hilabetean, guztiz doan emakume baten laguntza izango dute. Eta, hilabete hori pasatuta, familiak langile horrekin gustura badaude, atea zabalik izango dute berau hartzeko.

DANIELA LEONOR PEDROZA | IKASLEA

"Hasieran uste nuen baino askoz harantzago joan da ikastaroa"

Barranquilla hirian, Kolonbian jaioa, Aretxabaletan bizi da gaur egun Daniela Leonor Pedroza. Kultura arteko Formazio ikastaroa egin du eta pozik dago orain praktikak egingo dituelako.

Zergatik erabaki zenuen ikastaroan izena ematea?

Lehenik eta behin, jakin-minagatik. Eta, bigarren, jakin arren lan mundua dagoen moduan dagoela, atek irekitzen joateko aukera polita iruditu zitzaidalako.

Eta orain, ikastaroa egin eta gero, pozik zaudete?

Bai, oso-oso pozik. Zoragarri joan da dena.



Zer nabarmenduko zenuke ikasi duzunetik?

Hasieran, etxeko garbiketaren gainekoa zela jakiterakoan, pentsa daiteke oso sinplea dela; baina pentsatu baino askoz harantzago joan da. Hemengo kultura, birziklatzea, genero-harremanak... denetarik ikasi dugu. Horrek denak asko motibatu nau. Irakasleek asko eman digute.

Eta ikaskideekin, zer moduz moldatu zara?

Ezin hobeto, izugarri ondo konpontzen naiz guztiekin.

Besterik gaineratu gura duzu?

Bai: konturatu naizela ideologiek oztzatzen dutela integrazioa. Pertsonok, denok berdinak gara, han edo hemen jaiok garela. Eta bereziki sufrimenduan, denok bat egiten dugu, maitasun eta adiskidetasun handia erakusten dugu.



MUNGIA
UDALA

LANDETXXO GOIKOA



EUSKAL ETXEAREN SORRERA

XVI. mendearen hasieran Landetxo familiak baserria eraiki zuten hiru mende aurreragotik bizi zen lekuan bertan; eraikin hori lehenengoetariko baserria izan zen.

Gaur egun, mende asko igaro ostean ere, jatorrizko baserria ikusteko aukera dugu eraikin horren historiaren berri ematen digun bisitaldi gidatuan. Bisitaldi horretan Landetxo deseraikitzearen eta berreraikitzearen abentura azaltzen duten infografia bikainak eta "Baserri Magikoaren" gaineko erakusketa azalduko zaizkigu.



BASERRI MAGIKOA

Azalduzina eta magikoa eguneroko bizitzaren parte.

Etxea, baserria, bertan bizi direnen munduaren ardatza da.

Beheko-suaren (laratza bertan) eta suaren beraren bueltan sortzen dira desagertu zaigun mundu horren mito, siniskera eta errituak. Bertan gaudela hartu ahal izango dugu gogoan suaren eta errautsen zentzua, eta bertan ikusiko ditugu kutunak, lizarra, aizkora, ogia, eguzkilorea...



HARITZAREN ARKITEKTURA

Landetxo XVI. mendeko haritz-arkitekturaren adibide bikaina da. Oso teknika landuak erabilia (kanpokotik ekarritakoak, seguru asko) Baserria, euskal etxea eraiki (asmatu) zuten, lehenagoko eredurik izan gabe. Aldez aurretik diseinatutako puzzle batean bezala, baserri honetan pieza guztiak elkarrekin ahozkatzea lortu da.

Bisitaldi gidatuan eraikitze lan horren edertasun eta bikaintasunaz jabetuko gara.



BISITA GIDATU ETA DIDAKTIKOA

Talde bakoitzeko gida espezializatu bat egongo da. Bisitak euskaraz zein gazteleraz egin daitezke.

ORDUTEGIA

Aldez zurretik hitzordu adostuta:
Astelehenetik igandera
• 10:00-14:00
• 16:00-20:00

TARIFA

• 9 € / pertsona
12 Pertsona gutxienez
• 7€ / pertsona
20 Pertsona gutxienez

INFORMAZIO ETA ERRESERBAK

• Tel: 946740061
• olentzero@izenaduba.com

Estatutuak aho batez onartuta, eratu da Tokikom, euskarazko toki hedabideen enpresa

- ▶ Zapatuan egin zuten batzar eratzailerak Eskoriatzako HUHEZI fakultatean
- ▶ Hemeretzi hedabidek osatzen dute momentuz, asmoa zabaltzea den arren

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Euskal Herri osoko hemeretzi euskarazko tokiko hedabideetako –tartean Goiena– ordezkariak aho batez onartu zituzten zapatu goizean Eskoriatzan egindako batzar eratzailerak Tokikom enpresaren estatutuak.

Mondragon Unibertsitatearen HUHEZiko fakultatean egin zuten batzarra, eta hala, fakultateko dekanok Nekane Arratibel izan zen bilerari hasiera eman ziona, han bildutako ongi-ongietorria emanaz.

Mikel Irizarrek hartu zuen hitza ondoren. Tokikomen eratze prozesuko aholkularia da Irizar, eta orain arte emandako urratsak azaltzeaz gain, aurrera begira jarraituko den prozesua ere azaldu zuen. Esan zuen behin elkar-atea ofizialki eratuta apirilean antolaketa zehazteko lanari ekin go diotela eta maiatzetik aurrera operatibo egotea dela asmoa, besteak beste publizitatea bezalako esparru komunak kudeatuz solaskidetzak bultzatuz eta integrazio funtzionala landuz. Toki hedabideen azpisektorea indartzeko asmoa azaldu zuen Irizarrek, baita euskal hedabideen sektorean eragile izatekoa ere.



Zapatuko eratze batzarrean ateratako familia argazkia. | JOSETXO ARANZABAL

Egoitza, Andoainen

Elena Laka abokatu eta Topaguneko zuzendaritzako kideak enpresa eratu berriaren aspektu legalak zein formalak azaldu zituen segidan, besteak beste zortzi eta hamar kide izango dituen administrazio kontseiluko kideak nola aukeratuko diren. Behin bertaratutako ordezkarien zalantzak argitutakoan estatutuen

bozketari ekin zioten. Hartutako erabakiak babes zabala izan zuen, estatutuak aho batez onartu zituzten-eta.

Hala, besteak beste onartu zuten sozietate mugatu izaera izango duela erakundeak, eta hasierako kapitala 25.000 eurokoa izango dela. Egoitza Andoainen izango du Tokikomek, Topagunearen leku berean.

Hedatzen joateko asmoa

Hemeretzi hedabide daude Tokikomen, baina asmoa da Topaguneko gainerako hedabideak ere elkartzea, baita Topagunetik kanpo dauden eta helburu bera duten euskarazko beste toki hedabideek ere. "Urte amaierarako, toki hedabideen azpisektore osoa Tokikomen bueltan egotea gura dugu" azaldu zuen Mikel Irizarrek.



MIKEL IRIZAR
TOKIKOM-EKO
AHOALKULARIA

"Tokikom gabe, zenbait kasutan alternatiba da toki hedabideak jaustea"

Tokikom sortzeko lanetan aholkularia izan da euskarazko toki hedabideetan eskarmentu handia duen Mikel Irizar.

Zer da Tokikom?

Orain arte marka bat izan da; orain urrats handi bat eman eta enpresa izango da. Publizitatea eta teknologia bezalako esparru komunak kudeatuko ditugu eta gura dugu sektorean dagoen dinamikan eta erakundearen aurrean toki hedabideen solaskidetzak sendo batizatea. Toki hedabideen integrazio funtzionala ere planteatu gura dugu. Euskal hedabideak bi pisuko eraikina bezala imajinatuz gero, Tokikomen helburua litzateke behetako ondo antolatzea, eta gero uztartzea goiko pisuarekin, euskarazko hedabide orokorrekin.

Euskarazko toki hedabideen kontsumitzaileek zertan igarriko dute Tokikom?

Hedabide horiek jarraituko dutela; Tokikom gabe, zenbait kasutan alternatiba izan daiteke toki hedabide batzuk jaustea. Tokiko kontzeptua irekitzeko urratsa ere bada; zonaldeko antolatzea da asmoa, interesak horizontalean zabaltuz eta goikoarekin uztartuz.

AGUS
HERNAN
ANTXETA IRRATIA



"Euskarazko tokiko irrati gutxi gaude, Topaguneari lau bakarrik, eta guretzat oso garrantzitsua da euskarazko irrati gintza ere Tokikomen egotea".

ALBERTO
UGARTE
BLB TALDEA



"Uste dut bidea elkarrekin egin behar dugula, eta aukera ona da aztertze, hausnartze, helburuak finkatzeko eta aurrera egiteko".

XABIER
GOIENETXEA
AIKOR ALDIZKARIA



"Tokikom garrantzitsua da komunikabide moduan denak banaka txikiak garelako, eta elkartuta beharrezkoa den indarra hartzen dugulako".

IBAN
ARANZABAL
GOIENA TALDEA



"Horrelako enpresa egiturak aukera ematen digu beste hainbat proiektu berritan sartzeko, daukagunak egokiago lantzeko eta egiten dugun lanari etekin hobea ateratzeko".

Usurbilgo esperientzia azaldu zuten ostiralean Bergaran

Usurbilgo Zero Zabor taldeko bi kidek hitzaldia eskaini zuten osoko bilkuren aretoan



Hizlariek adibide praktikoak erabili zituzten hitzaldian. | JOSETXO ARANZABAL

T.M. | BERGARA

Hiri hondakinen inguruan herritarrak informatzeko prozesuaren barruan, egubakoitzean izan zen hirugarren hitzaldia Bergaran.

Zer zabor: posible da atez atez atez gabe? izenburupean eskaini zuten hitzaldia Usurbilgo Zero Zabor taldeko Ainhoa Arrospe eta Mikel Ikatxategik. Hiri hondakinen arazoa azaldu zuten eta Usurbilen atez atekoarekin izan duten esperientzia ere azaldu zuten, besteak beste aurrera eramandako parte-hartze prozesuak berba-gai hartuta. Hitzaldi praktikoa izan zen, konposta nola egiten den edo atez ateko sistemaren erabiltzen diren kuboak erakutsiz. Gaur izango da hurrengo hitzaldia eta bertan, Hernanin eta Antzuolan bizi diren bergararrek atez atekoarekin izandako bizipenak azalduko dituzte. 19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

Meteorologia zerbitzutik elurra iragarri dute 700 metrotik gora

Asteon hasiko da udaberria, baina badirudi negu giroko eguraldia lagun izango dugula oraindik ere. Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zerbitzutik elur eta izotzari dagokion abisu horia ezarri dute gaurko eta biharko. Gaur, astelehena, goizaldean eta egunaren azken orduetan elur-kota 700-800 metro inguruan kokatuko da; egunaren erdiko orduetan 800-1000 metrora igoko da. Bihar, elur-kota goizaldean 700-800 metro inguruan kokatuko da, goizean 800-1000 metrora igoko da eta gauean 900-1100 ingurura. Izotz txikia ere iragarri dute barnealderako.

Gizonezko bat atxilotuta Arrasaten genero indarkeriagatik

Zapatuko lehen orduan Ertzaintzak 25 urteko gizonezko bat atxilotu zuen Arrasaten. Etxe baten liskarra zegoen abisua jaso zuten ertzainek eta bertaratu zirenean hainbat pertsona aurkitu zituzten, baita etxea hankaz gora eta hainbat altzari lurretik botata ere. Ertzaintzatik jakinarazitakoaren arabera, eztabaida baten ondorioz atxilotuta amaitu zuen gizonezkoak bere emazteari eraso egin zion eta familiako bi kide tartean sartu izanak mehatxuak eta borroka ekarri zituen. Emakumeak urradurak eta lesioak zituen beso batean eta osasun zentroro erotan zuten.

Ur azpiko esplorazio eta koba berriak ezagutarazi dituzte Eskoriatzan

- ▶ Aloña Mendi eta Besaide espeleologia taldekoek azken bi urteotako lanen berri eman dute
- ▶ Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin egindako esplorazioetan aurkikuntzak egin dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Debagoieneko erraien gaineko irudi ikusgarriak ikusi zituzten egubakoitz arratsaldean Eskoriatzako kultura etxean. Ordubeteko iraupeneko *Uraren bidea* izeneko emanaldian, azken bi urteotan Besaide eta Aloña Mendi Espeleologia Taldeak Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan egindako lanen gaineko 150 argazki, testu eta bideo erakutsi zituzten.

Aloña Mendiko kide Santi Ugartek eman zituen horren gaineko azalpenak. Aretxabaletan Urkulu inguruan, Oñatin Arantzazun eta Araotzen eta Arrasaten Meatzerrekan ibili zirela azaldu zuen, eta bereziki, bukatutzat emandako esplorazioak berrikusi dituztela; ur azpiko espeleologiarekin lotutako lanak ziren gehienak.

Koba berria Arrasaten


Horren harira, hainbat kobatan aurkikuntza garrantzitsuak egin zituztela esan zuen. Esaterako, Arrasaten kilometro eta erdiko koba berria eta Oñatin uste baino luzeagoa den beste bat; hiru kilometro pasatxo dituen. Animalien hezurak ere agertu ziren.



Arrikutzen, lokatzez beteta. | ROBERTO GARCIA - EUSKAL ESPELEOLOGOEN ELKARGOA



Galdamesen, eskalatzen. | ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA



Arrikutz aztertzen. | SERGIO LABURU - EUSKAL ESPELEOLOGOEN ELKARGOA

GSR Debagoiena egoitzan boluntario bila dabilta

Hirugarren adinekoekin irteerak egitea nahi dutenek egoitzara edo 943 77 20 88 zenbakira jo behar dute

M.B. | ARETXABALETA

Uda sasoa gerturatzeko ari dela eta, Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute egunotan. Hirugarren adinekoekin irteerak egitea pentsatzen dabilta, eta horretarako behar dituzte, hain justu ere, boluntarioak.

Denbora libre dute debagoiendarrendako deialdia egin

gura izan dute zaharren egoitzatik: "Denbora libre baduzu eta hirugarren adinakoei laguntza eskaintzeko interesa izan eta prest bazaude, zuzenean jo dezakezu GSR Debagoiena egoitzako harrerara edo, nahiago izan ezkerro, 943 77 20 88 telefono zenbakira deitu".

Ahalbideen arabera


Horren harira, gaineratu dute irteerak antolatzerako orduan kontuan izango dutela boluntario bakoitzak dituen ahalbideak eta baita denbora ere.

MUK jardunaldia antolatu du Arrasaten materialen bizitza luzatzeko aurrerapenak ezagutarazteko

Mondragon Unibertsitateak *Zama mekanikoak eta termikoak jasaten dituzten osagai metalikoen nekearen azterketa* izeneko jardunaldia antolatu du gaur eta bihar, hilak 19 eta 20, hurrenez hurren, ingeniartzako azken kurtsoetako ikasle, ingeniari, ikertzaile eta doktoregaiendako. Eta amaieran, unibertsitateko laborategiak ikustera joango dira. Automozioan, ingeniartzan zibilean, aeronautikan, bioteknologian eta beste arlo askotan, eguneroko materialen "bizitza" luzatzeko eta gastuak murrizteko ikerketak ari dira egiten. Jardunaldiaren ondotik, eguaztetik egubakoitzera, materialen nekearen, hausturen eta iraunkortasunaren esparruko 150 ikertzaile eta profesional elkartuko dira Bilbon, Mondragon Unibertsitateak antolatutako Espainiako Haustura Taldearen XXIX. topaketan.

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF
inprimategia

jai egitaruak
kartelak
gonbidapenak
tarjetak
aldizkariak
inpresioak
errekordatorioak
liburuxkak

Zerga "ekitatiboagoekin", 100 milioi batzea espero dute

Zati handiena PFEZen aldaketekin batuko du Ogasunak: 69 milioi euro

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Zerga sisteman Ogasunak egin dituen aldaketei esker, zerga-bilketa "ekitatiboagoa eta progresiboagoa" izango dela uste dute arduradunek, eta aurreikusi dute 100 milioi batuko direla. Hala esan zuten joan den astelehenean Helena Franco Ogasun diputatuak eta Itziar Miner Zerga Politika zuzendariak Batzar Nagusietan. Hantxe azaldu zituzten Foru Aldundiak zerga sisteman egindako aldaketa nagusiak.

Denetara, 100.259.889 euro batzea espero du Ogasunak, zerga motaren arabera honela banatuta (kopuruak eurotan): PFEZen egindako aldaketei esker, 69.458.497; deflaktazioaren eraginez, 19.594.401 euro aurrezteko espero dute; berreskuratu egin den Ondarearen gaineko Zergarekin, 29.095.793; Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren bidez, 11.300.000; eta sozietateen gaineko zergarekin, 10.000.000.

Etekinak, eskalatik kanpo

Foru Aldundiko ordezkariok krisiaren ezaugarri gisa aipatu zuten zerga bidez gero eta gutxiago batzen dela. Gaineratu zuten, zerga-bilketa bi zergetan oinarritzen da: BEZa (%40,4) eta Errenta Zerga (%35,1).

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga "azken urteotan gero eta ekitate txikiagoz banatzen" dela esan zuten, batik bat "aurrezkiaren tratamendua dela -eta: etekinak oinarri ezargarri orokorretik kanpo zergapetzen dira; beraz, eskalaren progresibitateak ihes egiten dute". Hori zuzentzeko hartu dituzten neurriekin, zergadun bakoitzak batez beste 173 euro gehiago ordaindu beharko ditu, modu honetara: 30.000 euro baino gutxiago aitortzen duten zergadunak, guztiaren %72,2, zerga igoeraren %13,7 jasango dute. Igoera nabarmenenak hauek dira: 60.000 eta 70.000 euro bitarteko oinarri likidagarria duten



zergadunentzat batez besteko tasa efektiboa %25,5etik %26,9-ra handitzen da; 70.000 -100.000 bitartekoentzat, %28,2tik %29,9-ra; 100.000 eta 120.000 bitartekoentzat, %30,7tik %33,2ra; eta 120.000 euro baino gehiagoko oinarria aitortzen dutenentzat, %30,9tik %34,3ra.

Ondarearen Zerga, aldatuta

Aurtengo zerga-bilketaren beste berritasun bat Ondarearen Zerga berreskuratu izana da; hori bai, aldatu egin dute. Aurtengo, 5.239 lagunek aitortu beharko dute zerga hori. Bestalde, 5.108 zergadunek biak, Ondarearen Zerga eta PFEZ aitortu beharko dituzte. Ondarearen Zergarengatik 28,6 milioi ordaindu beharko dute, eta PFEZgatik, beste 12,3 milioi euro. Foru ordezkariak azpimarratu zuten, "azkenean, 5.108 zergadun horiek zerga-igoeraren %41,6 ordainduko dute, 40,9 milioi euro".



Osasun publikoan egin diren murrizketen aurkako bilkura egin zuten ospitaleko langileek martitzenean. | ARRITXU BARRUSO

Osasun langileek zerbitzuaren kalitatea txikitu izana salatuko dute

Eskualdeko Ospitaleko profesionalak "kudeatzaileen jarrera" kritikatu dute

L.K. | ARRASATE

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko eta osasun zentroetako langileek, haien enpresa-batzordeak izenpetutako idatzi baten bidez, "oraingo kudeatzaileek langileenganako eta herritarrenganako

duten jarrera salatu" nahi izan dute. Ospitale berria "inauguratzeko hiru hilabete falta direnean, oraindik ez dakigu ze zerbitzu emango dizkieten euskal osasun publikoaren erabiltzaileei", esan dute.

Honako kritika orokorra egin dute: "Askok ikusi ahal izango zuten, osasun zentroetan gutxi-naka-gutxinaka eta nabarmen txikitu da kalitatea". Horren zergatia hau da, euren hitzetan: "zeregin guztiak egiteko gero eta

baliabide gutxiago" daudela. Horren adibideak eman dituzte: itxoite-denborak "handitu" izana; aste bukaeretakoa larrialdi zerbitzuan, pediatria errefortzua kendu izana; edo gaueko zaintzaile -txanda bat ere kendu izana. Hauxe eskatu dute: "Erabiltzaileek beste osasun-erakundeetan ematen diren tratatu eta zerbitzu berberak exijitu behar dituzte".

Idatzi hori ospitaleko enpresa-batzordeak sinatu du -ELA, LAB, SATSE (erizainak), CCOO eta Medikuen Sindikatua- eta martitzenean ospitale aurrean langileek egin zuten kale-bilkuraren haritik dator.

Euskadin, grebarekin bat

Egonezina orokorra da EAEko osasuneko langileen artean. Izan ere, osasun publikoko sindikatu korporatibo nagusiek -SATSE, SME, FFHE, SAE eta FESITESS- ere bat egin dute hilaren 29ko greba orokor deialdiarekin, eta hainbat mobilizazio deitu dituzte; tartean, hilaren 28an EAEko osasun zentro guztietan bilkurak. Aukera handiak daude Debagoieneko Ospitaleko langileek ere deialdi horiekin bat egitea.

Osasun Sailari osasun publikoa murriztea egotzi diote, eta lan-erreformaren errefusatu dute. Hainbat datu ere eman dituzte: besteak beste, Osakidetza 243 milioi txikitu duela aurrekontua 2010-2012 hirurtekoan -"baina baliabide gutxiagorekin ezin dira zerbitzu berberak eskaini", esan dute.

Mondragoneko presidentea eta beste bi kide, Indiarra

L.K. | ARRASATE

Lopez lehendakariak lideratuko duen Indiarako enpresa-misioan joango dira Mondragon Korporazioaren Nazioarteko Saileko bi kide eta korporazioko presidente Jose Mari Aldekoa. Misioa astelehenean, hilak 19 hasiko da. Besteak beste, Mondragon Punen eraikitzen dabilen industrialdea bisitatuko dute. Mondragonek nazioartean egiten duen 2. industrialdea izango da, eta urteko lehen seihilekoan inauguratzea espero dute. Oraingoan, Danobat taldearen lantegia bakarrik dago han.

Euskadiko 95 enpresa eta ekonomia-erakunde joango dira lehendakariarekin Indiarra. Industria sailburu Bernabe Undak eta Kanpo Ekintza sailburu Guillermo Etxeniketik oraingo legegandian Lopezek lideratu dituen lau enpresa-misioak baloratu zituzten: Brasilera, Txinara, Arabiar Emirerrietara eta AEBetara egindako misioetan 350 enpresa baino gehiagok parte hartu dute, eta 2009 eta 2011 artean, batez beste, %57 hobetu dira enpresa horien esportazioak.

Mondragon Korporazioaren txosten bat jakinarazi zuen Undak. Horren arabera, leku askotan kokatzen diren enpresek %26 lanpostu sortu dituzte; ordea, atzerrian ez daude nek enpleguaren %10 galdu dute.

Mikroenpresak Interneten egon daitezke, 550.000 euro

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak 550.000 euroko diru-laguntzak banatuko ditu enpresa txikiak Interneten modu aktiboan egon daitezke. Apirilaren 26ra arte egin daitezke eskaerak, webgune honetan: www.gipuzkoa.net/subvenciones.

Grebaren inguruko hitzaldi informatiboak egingo ditu ELAK

Martxoaren 29ko greba orokor deialdia dela-eta, ELA sindikatuak bere kide eta lagunei zuzendutako hitzaldi informatiboak antolatu ditu: hilaren 21ean, Oñatin, 10:30ean ELAren egoitzan, eta 18:00etan, kultur etxean izango dira hitzaldiok; eta hilaren 22an, eguena, Bergaran duen egoitzan, 10:30ean eta 18:00etan.

Joseba Azkarraga | Soziologoa

"Kolizio momentu bat bizi dugu eta kolapsora ez dago pauso handia"

- ▶ 'Euskal Harriak' da soziologoak argitaratu duen azken lanaren izenburua
- ▶ Mundu mailako zein Euskal Herriko irakurketak jasotzen ditu

M. ARREGI/T. MADINA | ARRASATE

Durangoko Azokaz geroztik esku-ratu daiteke Joseba Azkarraga soziologoaren azken lana, *Euskal Harriak* izeneko saiakera liburua. Bertan, HUEZIKO irakasle eta ikerlariak egungo krisi ekonomiko haratago doan hausnarketa egiten du.

Zer da *Euskal Harriak*?

Asko laburtu beharko banu esango nuke gure Mendebaldeko garapen ereduari buruzko irakurketa kritiko bat dela. Gaur egun, ia gau eta egun hizpide dugu krisi ekonomiko eta finantzarioa eta egiten dudana da atzera pauso bat eman eta gaur egungo munduaren nondik norakoa perspektiba gehiagorekin ikusten saiatu. Diagnostikatzen dena da krisi ekonomiko bat baino konplexuagoa den askotariko krisi bat dela. Krisi ekonomiko eta bere eragina oso ukigarriak eta neurri baten berehalakoak egin zaizkigu; baina badaude azpitik tendentzia batzuk, akaso epe ertainera eragin larriagoak izan ditzaketenak eta hor aipatzen dira krisi energetikoa, klimatikoa, bioaniztasunaren gainbehera...

Munduaren osasunari buruzko azterketa honetan, zein da ondorio nagusia?

Urte asko eman genituen esaten bestelako mundu bat posible dela. Gero posible dela esatetik beharrezkoa dela esatera pasa ginen, eta liburu honek maneiatzen duen tesi nagusia da bestelako mundu bat saihestezina dela; bai ala bai etorriko zaigu beste mundu bat. Azken hamarkadetan bizi izan ditugun aldaketak benetan garrantzitsuak izan dira, hainbat eremutan gainera, ez bakarrik teknologikoan: identitatearen eremuan, ekonomiaren eremuan... Aldaketa hauek ez dira epidermikoak edo azalekoak izan, sakonak baizik, aipatutako eremu horien muina eta bihotza ukitu dutenak. Tesia da hurrengo hamarkadetan biziko ditugun aldaketak behar bada handiagoak izango direla. Gure munduak duen kontraesanik handiena da gure metabolismo sozioekonomikoa gero eta konplexuagoa dela, gero eta material eta energia gehiago erabiltzen dela gure prozesu produktiboetan. Baina gero mundua dena da, gure biosfera finitua eta mugatua da eta zentzu horretan sekulako kontraesana bizi dugu. Baliabide larregi kontsumitzen dugu, mundu honek berrizatzeko duen ahal-

Joseba Azkarraga, *Euskal Harriak* liburua eskuetan duela | MIREN ARREGI

"Krisi ekonomiko baina konplexuagoa den askotariko krisia da bizi duguna"

menetik gora; era berean hondakin larregi sortzen dugu, munduak xurgatzeko duen ahalmenetik gora. Horrek adierazten duena da kolizio bat. *Hazkundearen mugak* liburua 1972an idatzi zen, eta orduan maneiatzen zen tesi nagusia zen gizadi moduan kolizio norabide baten geundela. 40 urte pasa dira abisu hori heldu zenetik eta egun kolizio momentu bat bizi dugu eta kolisiotik kolapsora ez dago pauso handi bat.

Nola heldu gara honetara?

Zaila da faktore bakarra seinaltzea, baina faktore moduan, hor dago hazkunde ekonomiko bera: zenbat eta hazkunde ekonomiko handiagoak, orduan eta material eta energia gastu handiagoa dakar.

"Gero eta hazkunde ekonomiko handiagoa izan arren ez gara hobeto bizi"

Materialen erabileran eta energiaren kontsumoan gero eta eraginkorragoak izan arren, konputo globalak dioena da gure kontsumo handitzen doala ikuspegi guztietatik. Nahiko kuriozua da, zeren eta hazkunde ekonomiko gertatzen dela entzun bezain pronto gure entzefalograma ikaratu eta beldurtu hori lasaitu egiten zaigu. Baina hazkunde ekonomikoak azken hamarkadatan areagotu egin ditu ezberdintasun ekonomikoak, bai euskal gizartean eta baita munduan orokorrean. Era berean, hazkunde ekonomikoaren ondorioz egundoko hondatze ekologikoa bizi dugu, gure historian inongo aurrekaririk ez duena. Beste alde batetik, haz-

"Burujabetzan, politikoa dena baino haratago integratu behar dugu"

kunde ekonomikoaren gaineko irakurketa konplexuagoa egin behar dugu derrigorrez: ez da egia hazkunde gero eta handiagoa izan, orduan eta hobeto bizi garenik, gure bizi poza, zoriontasuna edo ongizate subjektiboa hobetzen denik. Gainera, hazkunde garaia bizi izan ditugunean, Mendebaldean biderkatu egin da antsiolitikoaren kontsumoa. Hazkunde ekonomikoaren irakurketa konplexuagoa egin beharko genuke. **Gauzak konponduko dituelakoan krisi honetan denok gaude hazkundearen zain, baina zu ez zaude ados.**

Zabaltzen den aro historiko berri honetan sektore batzuek deshazkunde prozesu bat bizi beharko

dute edo bizi dute honezkero eta beste sektore batzuk hazi egin beharko dira. Eta populazio sektore batzuk deshazkunde prozesua bizi beharko dute, eta beste populazio sektore batzuk euren ongizate materiala hazten ikusi beharko lukete, bai Hegoaldean eta baita Iparraldean ere; irakurketa konplexua izan daiteke. Baina egia da giza ongizatearen inguruko gogoeta sakonago bat egin beharko genukeela; galdera da: zerk ematen digu guri espezie moduan ongizatea? Ekoizpen materiala eta produkzio ekonomiko materiala ongizate iturrietako bat da, oso garrantzitsua gainera eskasia materialeko sasoi historikoetan eta lekuetan. Baina gutxienez beste bi ongizate iturri daude. Bat dira oinarri monetario ez duten gizakien arteko elkartrukeak: afektua, nortasuna, komunitatea. Iturri hori oso garrantzitsua da eta askotan hazkunde ekonomiko garaiek egin dutena da iturri hau txikitu. Hirugarren iturria da ekosistematik heltzen zaigun dena, ekosistema zerbitzuak deitzen direnak: oxigenoa, ura... Gure mendebaldeko gizarteek lehenengo iturria asko garatu dute, baina garapen horren kausaz beste biak txikitu egin dira.

Euskal abertzaletasuna ere aztertzen duzu post-hazkundearen garai honetan.

Liburuan etengabe dago kulunkatze hori: mundu mailako irakurketa dago, baina gure Euskal Herrira ere ekartzen da gaia. Gainera, etorkizunari begira planteatzen da burujabetzaren kontzeptua are garrantzitsuagoa izango dela, nahiz eta ez guk normalean ulertzen dugun moduan. Defendatzen dena bada burujabetzaren kontzeptua zabaldu egin behar dela herri honetan, burujabetza politikoa haratago dagoen burujabetza batzuk integratu beharko genituzke gure lexikoan: elikadura burujabetza, energia burujabetza, autohorni-kuntza...

Norendako da *Euskal Harriak*?

Gaiak ikusita irudituko daiteke liburua konplexitate handikoa dela. Baina ez da hori, inondik inora; uste dut nahiko irakurterraza dela, horretan ahalegindu nahiz behintzat, eta irakurri dutenek esan didate oso errez irakurtzen dela. Publiko nahiko zabal batendako pentsatutako eta idatzitako liburua da.

TORRA+PORTELLA

Zure seme edo alabaren ideiarik onena bezain jostagarria. Horrelakoa izatea nahi duzu bere denboraren zatirik handiena igaroko duen lekua. Magikoa, abegikorra, bere adinerako pentsatutako aukera praktikoekin. Umeentzako logeletan proposamen ugari dituzu made in Kibuc. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara funnya



gutxieneko
prezioa
bermatuta ok



1.176 €

98 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak
doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta
eraberritze
integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Niko programa Argi eta kolore ugaziz osatutako proposamena, zure seme-alaben beharretara eta espaziora egokitzen dena. Trinkoa, ohe ateragarria eta ateratzeko estalkia L 203,8 zm-koak, 2 ateko armairuarekin (L78,4 zm-koa) eta kuboekin. **Akaberak: decapéak, testuratu zuria eta laranja iluna. Neurria: L 281,8 zm.** Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. *Irekitze-gastuak % 2, eta finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Haritz Azkarraga | Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzia (1999-2003)

- ▶ Aukeako errektore kontseiluko presidente izan zen lau urtean Zubizarreta alkatearekin
- ▶ Uarkape inauguratu eta Musakolako kiroldegia eraberritu zuten agintaldi hartan
- ▶ Alderdien Legeak behartuta, politika aktiboa utzi zuen 2003an

"Zinegotzi garaian ikasitakoa askotan erabili dut eguneroko bizitzan; asko jaso nuen lau urtean"

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Haritz Azkarraga (Arrasate, 1973) Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzi izan zen agintaldi bakarrean. Hain justu ere, Espainiako Gobernuak Alderdien Legea onartu aurreko agintaldian. Lau urtez Aukeako errektore kontseiluko presidente izan zen. Herriko kirol taldeekin hartu-eman estua izan zuen.

Lau urte izan zinen zinegotzi. Ze oroitzen dituzu?

Onak, oso onak. Oso gazte heldu nintzen politikara, 26 urterekin, ikasketak bukatu berri. Asko ikasi nuen agintaldi hartan. Orduan ikasitakoak askotan erabili ditut eguneroko bizitzan. Esperientzia ona izan zen.

Nik asko ikasi nuen, baina guk herriari ere asko eman geniola uste dut. Bi horiek balantza baten ipiniz gero, esango nuke eman nuena baino askoz gehiago jaso nuela.

Aukeako presidente izan zinen. Kirol gaiekin buru-belarri ibiliko zinen?

Bai, hala da. Udal batzorde guztiak dute hartu-eman herritarrekin, baina Aukeak, askoz handiagoa. Kirol Zerbitzuko erabiltzaileak, kirol eskola, kirol taldeak, eragileak... Hartu-eman handia izan nuen horiekin guztiekin. Gainera, herriari egotea eskatzen duen postua dela esango nuke.

Dena den, bazenuen eskarmentua kirolean.

1993an Zaldibarko areto-futbol txapelketaren ardura hartu nuen, eta bost urte egon nintzen antolatzen. Egun ere egiten dute Zaldibarko txapelketa, baina urte haiek izan ziren urrezko urteak: 80 talde eta 1.000 jokalaria baino



Haritz Azkarraga EHko zinegotzi izan zen 1999tik 2003ra. | HARITZ AZKARRAGA

gehiago. Txapelketak oihartzun handia hartu zuen, eta baita nik ere. Famatu egin nintzen herrian. [Barre]. Zaldibartik politikara salto egin nuen.

Ze proiektu azpimarratuko zenuzuke?

Asko. 1999an hauteskundeak irabazi zituen EHk, 1997an Xabier Zubizarreta alkatearen kontrako

mozioa onartu ondoren. 1997tik 1999ra arteko tartea *biurteko beltza* bezala ezagutu zen. Gu gobernura heldu ginenean, bi urte haietan egindako hanka-sartze guztiak kon-



Haritz Azkarraga, 2003ko Aukea sariak banatzen. | GOIENA

pondu behar izan genituen. Haste-ko, Uarkape. Lanak oso atzeratuta zeuden, aurrekontua asko hazita eta hasierako proiektua erabat aldatuta. 1999ko uztailean sartu ginen Udalera, eta urte bereko Santamasetarako inauguratu genuen frontoia, eta kudeaketa Aukeara itzuli zen. Bestalde, Musakolako kiroldegiari itxura berria eman genion. 1977an inauguratu zenetik eraberritze sakon baten beharra zuen, eta egun duen itxura eman genion. Eraberritzea aprobetxatu genuen tarifen sistema aldatzeko. Hainbat abonua ipini genituen: zerbitzu umelendako, lehorrendako eta bietarako abonua. Harro nago hartutako erabakiarekin.

Deskontuen politika ere aldatu genuen: norberaren sarreraren arabera deskontuak egitea adostu genuen.

Mojategi egin barik bukatu zenuten agintaldia?

Proiektua guk idatzi genuen, baina ez genuen dirulaguntzarik jaso Aldunditik, proiektua gauzatu barik geratu zen. Hori da daukadan arantza. Eskerrak hurrengo agintaldian Mojategi egin zuten. Kirol instalazio dotoreak dira.

Alderdien Legeak politikatik kanpo utzi zintuen. Politika alde batera utzi duzu?

Politikan aktiboki jarraitzeko bidea moztu ziguten. Dena den, ez nago geldia. Itziarren bizi naiz. Foru Arau bat dela-eta Debarekin desanexioa lortzea posible ez denez, hortxe gabilta lanean Itziar Lekuko Entitate Txiki bihurtzeko. Hori lortuta, Itziarrek bere eskuduntzak izango lituzke: alkate, zinegotzi eta udal propioak, besteak beste.

"1993an Zaldibarko txapelketaren ardura hartu nuen: 1.000 jokalaria eta 80 talde"

"Mojategiko proiektua idatzi genuen, baina ez genuen gauzatu"

ALKATE ANDREA, HARIRA!

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | ANA BOLINAGAREKIN ELKARRIZKETA

MARTXOAK 20, 21:23 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: harira@goiena.com | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi. ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: [#traola](https://twitter.com/traola) #harira | Goiena.net: ikusi streaming bidez eta egin galderak eta iruzkinak.



HERRIAK

BERGARA

Emakumeak elkarteetako kide bakarrik ez, baita presidente ere

Eli Aranburu Perta elkarte gastronomikoko lehen emakume presidentea da otsailetik

IRATI GOITIA | BERGARA

Pasa berri dugu Emakumeen Nazioarteko Eguna eta berdintasunaren aldeko hainbat aldarri entzun ditugu nonahi, izan ere, oraindik ere emakumeok sarri sufritu behar izaten ditugu diskriminazio egoerak. Argi geratu da oraindik badugula non borrokatu.

Bada, elkarte gastronomikoean ere, kostatu den arren, lortu dugu sartzea. Zorionez, gero eta gutxiago dira emakumei sarre- ra ukatzen dieten elkarteak.

"Eztabaida sutsuak"

Bergarako Perta elkarte orain dela hamar urte izan zuten eztabaida hori, 2002. urtean. Hala azaldu digu egungo presidentea den Eli Aranburuk; bide batez esan, elkarte emakumezko lehenengo presidentea dela: "Nik ez nuen garai hura ezagutu, izan ere, zortzi urte daramazkit bazkide bezala. Hala ere, irakurri ditut aktak eta eztabaidak biziak izan zirela zehazten da. 31 aldeko boto egon ziren eta 12 kontrako. Nik uste dut askori ezjakintasunak ematen ziela beldurra eta ziur naiz ezetz bozkatu zuten haiei egun galdetuz gero, baietz erantzungo zutela orain. Izan ere, ikusi dute elkarteak, emakumeak sartu ginenetik, berdin-berdin jarraitzen duela funtzionatzen".

Hartutako erabakiaren ostean, poliki-poliki hasi ziren emakumeak sozietatean sartzen. Aitak erretiratu ahala euren alabei ere egin zitzaion tokia sukaldetan. Hain zuzen, horixe izan zen Aranbururen kasua ere, aitaren lekuko-koa hartu zuen.

Lehen emakume presidentea

Hamar urte bestetik ez dira pasa ordutik, eta egun, emakumezko bat da presidente. Otsailean egin zuten batzar orokorra eta orduan hartu zuen erantzukizuna Aranburuk. Iaz zuzendaritza taldean ibili zen karguaren eginbeharrak zeintzuk diren ikasten eta aurten berak hartu du ardura. "Nik ez diot garrantzirik ematen lehen emakumea izateari. Azkenean, bazkide zaren aldetik, egunen baten tokatu egin behar zaizu presidente lanak egitea eta hala-beharrez tokatu da ni neu izatea lehen emakumea. Egia esan, hasieran ohartu ere ez nintzen egin titulu horren jabe- den nin-



Eli Aranburu, Perta elkarte lehen emakumezko presidentea, elkarte sukaldetan. | IRATI GOITIA

rralde Elur-Mendi elkartearen erantzukizun hori hartu zuen lehen emakumea izan zen eta baita azkena ere. Izan ere, ordutik ez da beste emakumerik animatu ardura hori hartzera.

Astero hutsik egin gabe

Astero-Astero etorri behar izaten zen Lizarralde Getxotik Elosuraino: "Ardura handia hartu nuen, izan ere, ni urruti bizi nintzen orduan. Astean behin etortzen nintzen Elosura eta sarri baita birritan ere. Gizonarekin etortzen nintzen eta uste dut behin bakarrik egin genuela huts, elurraren ondorioz.

Bere eginbeharrak zeintzuk ziren ere zehaztu digu Lizarraldek: "Hamabi lagunek osatzen genuen zuzendaritza taldea eta bakoitzak zeregin bat zuen; beraz, lanak banatuta zeuden. Nire ardura kontuak eramatea eta zeuden arazo eta kexei irtenbidea ematea zen. Garai haietan ez zegoen ordenagailurik eta zentimoz zentimo, eskuz, kontatu behar izaten genuen diru guztia".

Bigarren etapa berriz, hamar urtera, lan gehiago egitea tokatu zitzaion: "Barne arautegia eta estatutuak aldatu behar izan genituen. Goitik behera aldatu genituen eta lan handia egin behar izan genuen. Orduan jada, Azkoitia bizi nintzen eta nire gizona erretiratu zegoen; errazagoa izan zen". Lizarraldek esan digu gustura ibili zela presidentea lanetan eta ez zitzaion gogorra egin.

Oraindik asko dago egiteke

Poliki-poliki emakumeok bagabiltza eskubideak eta eremuak geureganatzen. Horren adierazle dira Lizarralde eta Aranburu. Hala ere, oraindik asko dago egiteko. Hain zuzen, horixe aldarrikatzen zuen Lizarraldek: "Orain nire iloba dago elkartearen eta sarri esaten diot emakumeek aurrera jo behar dutela. Geuk egin ezean, nork egingo du ba?".

Aranburuk adierazi digu, betalde, poliki-poliki badabiltzala emakumeak elkartearen sartzen; nahiz eta, 120 bazkide arruntetik 18 besterik ez diren oraindik emakumeak. Baina berak dioen bezala: "emakumeak presidente izendatzea ez da albiste izan behar".

ESANAK

"Elkarte lehen emakume presidentea izateari ez diot garrantzirik ematen"

ELI ARANBURU
PERTXAKO PRESIDENTEA

"Emakumeok ardurak hartzen ez baditugu, ez dugu berdintasuna lortzerik izango"

LIDIA LIZARRALDE
ELUR-MENDIKO PRESIDENTE OHIA

DATUA

18
EMAKUME

Perta elkarte gastronomikoko guztira 120 bazkide arrunt dira eta horietatik 18 bakarrik dira emakumezkoak. Bestalde, 50 bazkide erretiratu inguru ere badaude.

tzela. Aipatu zidatenean, baina, harrotasun puntu bat sentitu nuen" adierazi digu Aranburuk.

Gaineratu digu errespetuz tratatzen dutela gizonek. "Ez dut begirada txarrik sumatzen. Esango nuke jada ohitu ere egin direla. Izan ere, garaiak aldatuz doaz eta dagoeneko ez gara harrizten emakume bat ikusten dugunean txofer, polizia edo presidente lanetan. Guk, emakumeok, ez

dugu inolako arazorik elkartearen gure iritzia emateko orduan".

Berdintasunaren alde

Lidia Lizarraldek uste du, berriz, sarri isiltzen garela emakumeok: "Nik esango nuke gizonezkoek eramaten dutela martxa. Emakumeok sarri ez dugu ardurarik hartu nahi izaten, eta, ondorioz, askotan gure errua ere izaten da; elkarte mailan esango nuke asko. Lizarralde Elosuko elkarte

presidentea izan da birritan. Orain dela hogeitun urte lehendabizikoa eta hamar urtera berritua.

Presidente izatea proposatu ziotenean bi arrazoirengatik eman omen zuen baiezkua. Hala azaldu digu: "alde batetik, lan hori burutzeko prestakuntza banuela uste nuen; eta, bestetik, beti aldarrikatzen dugu berdintasuna, baina guk ezer egiten ez badugu, ez dugu lortzerik izango. Horregatik eman nuen nik baiezkua". Liza-

ARRASATE

Artzain ferian, sukaldariak lehian

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Jende ugari ibili zen zapatu goizean Seber Altube plazan. Hileroko hirugarren zapatuko baserritarren azokarekin bat eginez, artzainen lehen azoka egin zuten eta, era berean, Arrasateko elkarte gastronomikoen arteko gisatu lehiaketa jokatu zen; hamabi elkarte izan ziren lehian eta Txalapartako Mikel Sanzberrok eta Juan Luis Uriartek prestatutako gisatuak eraman zuten lehen saria. Leintze elkarteko Alfredo Alonso eta Cayo Atxa bigarren izan ziren. Epaimahaia ez zuten lan erraza izan saridunak erabakitzeko orduan.

Pintxoak eta txakolina

Lehiaketaren ondoren, eta Mankomunitateak eta Debagaraia Landa Garapen Elkarteak antolatutako X. Jardunaldi Gastronomikoen barruan, euro eta erdiren truke, pintxoak (gisatuarenak edo buzkantzak) eta txakolina dastatzeko aukera izan zuten Seber Altubera hurbildutakoek. Hara joandakoen artean Juanito Zelaia oñatiar ezaguna ikusi genuen. Txakolingilea ere bada Zelaia (Upain txakolina izan zen ferriako protagonistetako bat) eta uzta ona izan dela aurreratu zigun Zelaiak.

Gatzatua egiteko tailerra ere egon zen Seber Altuben. Batis Otaegik eman zituen azalpenak eta entzuleria (helduak zein gaztetxoak) adi-adi izan zituen. Azalpenak eman bakarrik ez, gatzatua ere momentuan egin zuten. Era berean, bertaratutakoek Debagoieneko artzainek ekoiztutako gaztak dastatu ahal izan zituzten eta barazkiak, frutak eta bestelakoak ere izan ziren Seber Altubeko karpetan banatutako postuetan. Tarteka haize zakarra ibili arren, eguraldiak ere lagundu egin zuten.



Juan Luis Arkauz, Arrasateko alkatea, Cayo Atxa eta Alfredo Alonso. | E.M.



Gazta eta baserriko produktuak izan ziren ferriako protagonista. | JOSETXO ARANTZABAL



Maximo Iñurrategi, lanean. | JA.



Gisatu lehiaketako epaimahaiko kideak. Ez zuten lan erraza izan saridunak erabakitzeko orduan. | E.M.

BATIS OTAEGI
GOMIZTEGI KOOP.

"Gatzatua nola egin azaltzen saiatu gara eta jendea hurbildu da... baita gaztetxoak ere. Gatzatuaren sekretua? Ardiak, esnea ondo jaitzita izatea... eta mimo apur bat, besterik ez".

JUAN LUIS ARKAUZ
SUOC

"Azkenean 12 elkartet hartu dute parte gisatu lehiaketan eta pozik gaude, epaimahaiaren iritzi maila ona egon delako eta etorritako jendea ere gustura geratu delako antza...".

JUANITO ZELAIA
OÑATI

"Txakolinak tarte berezia izan du gaurko ferian eta Upain txakolinarekin etorri gara. Uzta ona irten da, bai. Hemengo txakolina Getariakoaren parean dago dagoeneko".

ESPE LIZARRALDE
ARRASATE

"Lagunekin hurbildu naiz azokara; giro polita sortu da. Horrelako ekimenak beti daude ondo herriari bizitasuna ematen diotelako. Orain ea buzkantza dastatzen dugun...".

AGURTZANE DIAZ
DEBAGARAIA LANDA GARAPEN ELK.

"Artzainekin astean zehar bilduko gara balorazioa egiteko, baina hasiera baten pozik gaude jasotako erantzunarekin eta bereziki Arrasateko elkarte eta Udalaren jarrearekin".

ELGETA

Elgetako gaztetxearen hamargarren urteurrena ospatu zuten zapatuan

E.M. | ARRASATE

Dagoeneko hamar urte bete ditu Elgetako gaztetxeak eta urteurren berezi hori ospatzeko egun osoko egitaraua prestatu zuten zapatutako. Goizean Intxortara mendi buelta egin zuten hainbat gaztek eta eguerdi partean, indarrak errekuperatzeko hamaiketako hartu ondoren, kalejiran ibili ziren Elgetan, trikitilarien musikarekin lagun-

duta. Ondoren, bazkaria egin zuten eta Jokin Labaien, Manex Agirre eta Enaitz Alustiza bertsolariak ere iragarritako ziren.

Kontzertua gauean

Gauean, urteurren festari amaiera borobila emateko, kontzertua izan zen gaztetxean, Ez! taldearekin. Luze jo zuten ospakizunak eta giro polita izan zen egun osoan Elgetan.



Gaztetxeako kide batzuk, zapatu eguerdian, bazkariaren aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Debagoieneko txakolina ezagutarazteko 72 botila banatu zituzten atzo Kajoi tabernan

Bedoñako Otxia txakolinaren aurtengo uzta aurkeztu zuen; ardo zaleen oniritzia jaso zuen saldak

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Arrasateko Bedoña auzoko Otxia txakolin berria dastatu zuten ardo zaleek atzo eguerdian. Hitzordua eguerdian jarrira zegoen eta hasieran bakar batzuk baino ez ziren animatu probatzera. Laster aldatu zen hori, eta 13:00etarako jendez gainezka zegoen Kajoi tabernako aurrealdea. Eguzkiak hirugarren urtez egiten den ekitaldian ere laguntzea gura izan zuen bere izpi gozoekin girotuz. Horiek, baina, gutxi iraun zuten, eta dastatzea amaitu aurretik euri tantaren bat edo beste ere bota zuen. Jendea, dena dela, ez zen kikildu, eta aurtengo uztak emandako salda probatzen jarraitu zuen.

400 mokadutxo

Otxia txakoli ekoizle Felix Etxagibeak uzta berriko sei txakolin kaxa eroan zituen Artazubiaga baserri-tik Kajoiara; bakoitza hamabi botilekin. Tabernako Antonio Murillok, ostera, ardo tragoxka hobeto sar zedin 400 mokadutxo inguru geratu zituen; azkar amaitu ziren horiek, eta baita txakolina ere.

Kajoin batutakoaren artean oso ondo sartzen zela eta "ederra" zegoela komentatu zen, hainbatek Getariako izendapena duen Otxia txakolina ere ez zutela ezagutzen esaten zuten bitartean. Horixe izan da, hain justu ere, dastatze horren lortu gura izan dena: Debagoieneko eta bereziki Otxia txakolina ezagutaraztea.



Antolatzaileak dastatzea hasi aurretik aurtengo uzta probatzen. | JOSETXO ARANZABAL

FELIX ETXAGIBEL
TXAKOLIN EKOIZLEA

"Kalitate oneko mahatsa sartu zen: osasuntsu eta heldutasun handiarekin"

Bailarako txakolina bultzatzeko helburuarekin, Otxia txakolinaren aurkezpena egin zuten hirugarrenez Arrasateko Kajoi tabernan. Txakoli horren arduradun Felix Etxagibeekin egin genuen topo han.

Nolako da aurtengo uzta?

Oso berandu jasotako uzta da; hain justu ere, iraileko azken astean. Heldutasun handiko mahatsa batu genuen; 14 gradutako tartea lortu zuen zenbaitetan. Kopuru aldetik apur bat jaitsi bazen ere, kalitate oneko mahatsa sartu zen: osasuntsua eta heldutasun handiarekin.

Hortaz, pozik?

Bai, konforme gaude aurten irten den txakolinarekin. Garrantzitsuenak da upategian sartzen den lehengaia; txakolin ona egiteko mahats ona behar da.

Zenbat litro irten dira?

Gutxi gorabehera, 7.000 litro egin ditugu.

ASIER
GOROSTIAGA
OÑATIARRA



"Txakolina gustuko dut, eta Otxiakoa oso ondo dago; orain arte ez nuen ezagutzen. Berria dela igartzen da, baina joango da poliki indar gehiago hartzen".

LIDIA
BUSTINDUI
DONOSTIARRA



"Ez naiz oso txakolin zalea, baina ondo sartzen da; ederra dago. Oso ondo ikusten dut horrelako aurkezpenak egitea, onak dira produktuak ezagutarazteko".

MIKEL
ANTXIA
ARETXABAETA



"Bat bakarrik hartu dut, baina ederra dago. Harrituta geratu naiz lehenengo tragoxka hartzean zelako ondo sartzen den ikustean. Gure artean komentatu dugu".



ONATI

JOSETXO ARANZABAL

Oinordekoak ere, arrakastatsu

Antxintxiketan kirol elkarteak antolatuta Txirri Mirri eta Txirribiton Juniorrek ikuskizuna eskaini zuten zapatuan Oñatin eta 750 ikusletik gora bildu zituzten eskainitako bi saioetan. *Sketch*, musika eta jolasekin eta haur zein gurasoen parte-hartzearekin, arratsalde pasa ederra egin zuten denek ere. Antolatzaileak gustura zeuden erantzunarekin, eta Oñatiko Nazioarteko Lasterketarako diru apur bat ere lortu zuten.



ONATI

JOSETXO ARANZABAL

Hamalau bikote mahai-futbol txapelketan

Hasiera baten hitzordua zapatuan zen arren, azkenean atzo egin zuten Oñatiko Gaztelekuan mahai-futbol txapelketa eta neska zein mutilen osatutako hamalau bikotek hartu zuten parte bertan. Bi taldetan banatuta, ligaxka jokatu zuten lehenengo bikoteen artean eta talde bakoitzeko onenak elkarren kontra lehiatu ziren final handian: Urko Gorgoñon eta Luis Txintxurreta Eider Herraiz eta Amy Whiten kontra. Finala mistoa izateak ederki girotu zuen Gaztelekuko giroa, eta azkenean mutilak izan ziren garaile.



KZguneko nabigazio gela, bariku goizean . | J.B.

KZgunea, laster Kulturaten izango da

Altzariak jaso eta egokitzapen teknikoak egin bezain laster, kultura etxeko informatika gelara aldatuko da Uarkapeko KZgunea

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kulturateko informatika gelan emango du aurki KZgunek zerbitzua. Kokalekuz aldatzeko bi dira arrazoi nagusiak: batetik, orain arteko egoitzan dauden hotz eta bero arazoak; eta, bestetik, AUKEAren ikuspuntutik, distortsio txiki bat sortzen duela kirol jardueraz zerikusirik ez duen jarduera bat kirolgune batean egoteak. Aldaketek, gainera, ez dute luze joko. Udaleko iturrien arabera, epe laburrean izango da aldaketa, behin beharrezko lan teknikoak egin eta altzariak jasotzen dituztenean.

EAEn, lehenetakoa

Informatika gelan bertan formazio saioek orain arte egon den nabigaziorako espazioa galaraz ez dezaten, gune bat egokituko dute formaziorako. Euskal Auto-

nomia Erkidegoko lehenetakoa izan zen Arrasateko KZgunea; 2001ean zabaldu zuten. Aurten, gainera, formazio modulu berriak hasi dituzte eta e-Administrazioa, Google aplikazioak, sare sozialak eta software askea lantzen dira saio berrietan. Hilero aldatzen dira moduluak, eta, formazioa jasotzeaz gain, nabigaziorako aukera ere badute erabiltzaileek, doan. Kopuruei begiratuta, hamai-

ka urtean 4.234 pertsona formatu dituzte eta 9.032 formazio ordu eskaini dituzte. Erabiltzailearen profilari dagokionez, gizon eta emakume, ia erdi eta erdi dira eta gehienak lanean daude. %24 dira langabeak. Adin tarteari dagokionez, gehienek 35 eta 54 urte bitartean dituzte eta azken urteetan langabe kopurua da igo dena; gehienak, gainera, formazioaren bila.

Bost ordenagailu berri informatika gelan

Azken Tokiko Gobernu Batzarrean 4.665,29 euroko aurrekontua onartu zen, pertsonalburuak egindako txostena aztertuta. Ekipamendu informatikoaren kasuan, leku aldaketak nabigaziorako hamar ordenagailu gutxiago izatea ekarriko luke, eta, hori horrela, Kulturateko egungo 16 ordenagailuei beste bost gehituko zaizkie.

Aste Santuan Getariara joango dira gazteak Txatxilipurdirekin

J.B. | ARRASATE

Oporretarako plana gertu daukate Txatxilipurdin. Hiru eguneko irteera antolatu dute Getariara, bertako Askizu izeneko auzora, eta ekintza ugari egiteko aukera izango dute hezitzaileekin, apirilaren 13tik 15era, DBHko 3. eta 4 mailetako gazteek. Irteerara joateko plaza kopurua mugatua da, aterpetxeko plazen arabera, eta kostua 30 euro izango da. Irteeran egingo diren ekintzak, menuak eta

bestelakoak gazteekin adostuko dituzte erdiguneko gaztegunean.

X. kirolen bideo lehiaketa

Horrekin batera, Txatxilipurdik X. kirolak euskaraz izeneko bideo lehiaketa martxan dauka 12 eta 17 urte arteko gazteentzako. Skate, patin, BMX eta antzeko jardueren bideoak bidali behar dira. Informazio gehiago: goiena.net/blogak/xkirolak. Maiatzaren 31 da epea.

Udal-kontratazioetan 'irizpide berdeak' garbiago aurrerantzean

J.B. | ARRASATE

Erosi beharreko paper motatik hasi, erregaien kudeaketaraino, obren zaratak edo bidezko merkataritzako kafea tarteko, esate baterako; Udalak barne antolamenduan aspalditik dauka "erosketa berdearen" oinarriak finkatuta. Orain arte sail bakoitzak ahal zuen neurrian betetzen zituen kontratazio-irizpideok, baina, aurrerantzean, Ihobe erakundearekin elkarlanean, finkatuago izango ditu. Jarrai-

bideak zehaztuta daukate Ingurumen Sailetik eta edozein zalantza aurrean sail horrek berak emango ditu gomendioak.

Aspalditik lanean

Arrasateko Udalak 15 urte baino gehiago dihardu kontratazioan irizpide iraunkorrak ezartzen, eta, onartutako diktamen berriarekin, Udaleko sail guztiek jarraibide zehatzak izango dituzte.

Sare sozialei buruzko berbaldia egunean, Herri Eskolak eta Institutuak antolatuta

"Gaiak gaur egun duen garrantzia kontuan izanik" eta interesea izango delakoan, Arrasate Herri Eskolak, bere 10. urteurrenaren barruan, eta Arrasateko Institutuarekin batera, sare sozialei buruzko hitzaldia antolatu du egunerako, hilak 22, 18:00etan, Kulturaten. Hizlaria Koldo Etxeberrria izango da eta eskolako familiei dago zuzenduta.

Filipinetako gatazkaren aurrez aurreko testigantza emango dute apirilaren 3an Kulturaten

Askapena erakundeak antolatuta, Filipinetako gatazka politiko, armatu eta soziala gertutik eta lehen eskutik ezagutzeko aukera egongo da apirilaren 3an Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. Filipinetako Fronte Demokratiko Nazionalako kide bat izango da aretoan, eta indigenen bazterketaz, multinazionalen eraginaz eta geratzen diren bidegabekeriez egingo du berba.

OHARRAK

BESAIDE ELKARTEA

Bizkaiko Birarekin aurrera jarraitzen dute Besaide Mendizale elkarteak eta jada zazpigarren txangoa egingo dute. Martxoaren 25ean izango da eta Muskiztik Turtziozerako ibilbidea egingo dute. Izena emateko bulegora joan behar da hilaren 19an, 20an edo 21ean, 19:30etik 20:30era bitartean.

ABAROA

Abaroarekin batera Kontsumoaren Euskal Eskolak elika-

durari eta nutrizioari buruzko hitzaldia antolatu dute. Jon Ariño izango da hizlaria. Gaur da berbaldia, 17:00etan, Abaroan.

YOGA ELKARTEA

Martxoaren 22an eta 27an meditazio budista egiteko aukera eskainiko du Arrasateko Yoga Elkarteak. Bi saio egingo ditu, 09:30ean eta 18:00etan. Sarrera bi saioetan debalde da eta helburua da barrua eta kontzientzia ezagutzeko.

Iturripe kanpoko kantxa, pitzadurekin

Iturripeko instalazioetan atletismo pistak inguratzen duen kantxa txikiaren egoeraz da kexu irakurle bat. "Aspalditik erabat utzita" dagoela ohartarazten du irakurleak, "pitzaduraz josita" eta "egoera txarrean". Kantxan ibili ohi den jende kopuru handia ikusita, irakurleak dio ez ote duen konponketa txikiaren bat merezi.



JON BEREZIBAR

Joxe Etxeberria: "%55ek dakite euskaraz herrian; erabili, aldiz, %30 inguruk, kale neurketaren arabera"

- Udal administrazioaren arloan euskarak gora egin du
- Hamar urtean, aldiz, euskararen erabilera 2,6 puntu igo da

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Udaleko Euskara batzordeak aurtan 1.151.483 euroko aurrekontua dauka. Joxe Etxeberria, Euskara batzordeburuak, Arrasate Irratian azaldu du diru partida hori nora bideratuko den: "Diru partidaren gehiengoa Udal Euskaltegiak hartzen du euskarazko eskolak emateko". Gastu korrontetara eta elkartei ematen zaien dirulaguntzetara ere bideratuko dela azaldu du Etxeberria.

EBPN abian

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren harira, euskara eragile guztiekin eta ikastetxeekin berba egin dutela azaldu du Etxeberria.

Euskara eragileekin dagoneko bi batzar egin dituzte. "Batzarrean ikusi genuen elkarrekin lan egiteko beharra eta prestutasuna badagoela; herriko beharrak aztertuta zer norabide hartu behar dugun ikusi dugu. Euskalgintzako eragileekin -AEK, Udal Euskaltegia, Txatxilpurdi, AED, EMUN, EKIN eta Goiena-, berriz, hausnarketa egingo dugu. Orain dela sei urte hasitako lanari eutsi diogu urrats berriak egiteko helburuarekin".

Hurrengo bilera hil honen bukaeran egingo dute, hezkuntza arlokoak gehituta: "Arizmendik, Herri Eskolak, Institutuak eta Eskola Politeknikoak, nork bera plana dauka, baina Euskara Biziberritzeko Plan honen barruan, plan horiek guztiak bildu nahi ditugu eta batera dezakegunarekin aurrera egin", azaldu du. Posible dela elkarrekin lan egitea azpimarratu gura izan du Euskara batzordeburuak Arrasate Irratian. "Orain gure erronka da asmatzea ze ildo eta formatutan heltzen diogun horri guztiari". Udal Euskaltegiarekin dagoen harremanaren gainean galdetuta, Etxeberria azaldu du Udalean egiten diren Euskara batzorde guztietara Udal Euskaltegiko ordezkaria joaten dela, baita EBPNren harira egiten diren bileretara ere. "Horrek esan nahi du bai AEKren eta baita Udal Euskaltegiaren presentzia beharrezkoa dela, egiten diren planen inguruan badutelako zer esana: ze behar ikusten dituzten...", azpimarratu nahi izan du.

Dirulaguntzak normalean araudi baten menpean daude. "HABEtik datozen araudiak dira eta ikasle kopuru gutxiengo bat bete behar da, adibidez. Horretan, Udalak ez dauka eskumenik. Udalak dirulaguntza txikiagoak eta bekak bideratzeko eskumena dauka. Gizarte laguntza programa egon eta euskara ikasi nahi due-



Joxe Etxeberria, Goienaren egoitzan, Euskaraz bizi nahi dut izarekin. | M.A.

narendako debalde da, adibidez", azaldu du.

Udalaren Euskara Plana

Udalaren Euskara Plana datorren urterako berri egingo dute. "Begiak non jarri behar ditugun ikusi behar dugu, hobetzeko. Langileen ohiturak eta jarrerak landu behar ditugu. "Udaletxean euskarak era formalean -egiten diren administrazio idatzietan eta aktetan- gora egin du; langileen artekoa, ordea, beste bat, izan daiteke".

Euskararen erabilera

Argitaratu berri den inkesta soziolinguistikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, hamar urtean, 2,6 puntu igo da euskara dakitenen kopurua.

"Biztanleen herenek euskaraz dakite EAEn, baina %80k gaztelania besterik ez du erabiltzen.

"Euskara komunikatzeko eta egiteko da; bestela ez du balio"

"Udalaren Euskara Plana berriko dugu datorren urteari begira"

Kezkatzeko moduko datuak dira. Batez ere, hartu duen joera. Ezagutza maila ez da horrenbeste igo, eta erabilera ez da jakitearen parean jarri". Euskaraz jakin arren gaztelaniara jotzeko ohitura dugula gaineratu du Etxeberria. "Berri pozgarri bakarra da gora egin duten arloak lan arloa eta udaletako administrazio arloa direla. Gutxien gora egin duena, berriz, etxean hitz egiten dena da". Arrasaten egindako neurketaren arabera, euskaraz dakitenen kopurua %55 inguruan dabil; baina erabilera, kale neurketen datuen arabera, %30-32 inguru da; datu kezagarria da. Transmisio arazoak ikusi dira, bai etxean, eta baita kaleko giroan ere; egunerokotasunean, alegia".

"Nahiko kanpo-larrosak gara, munduko euskaldun onenak bezala daukagu gure burua, baina gure praktika ez da horrelakoa; esku artean ditugun datuak erne egoteko moduak dira. Galtzar dagoen hizkuntza bat dugu eta ez gara ohartzen. Administrazioari eskatu behar zaio bere ekimenetan aurrera egin behar duela baina batez ere norbana-koari sortu behar zaio harra, ardura hori, inork esan gabe hizkuntzarekiko bete beharra duela".

Mezu bakar eta argia utzi gura izan du Etxeberria: "Euskara komunikatzeko, egiteko da, komunikatzeko ez badu balio, plantak ez dute balio".

Nagusiei omenaldia egin diete Uribarriko erretiratuaren elkatean

95 urteko Upina Valverde eta 92 urteko Eugenio Apaolatza auzotarrak omendu zituzten

M.A | ARRASATE

Eguenean, hilaren 15ean, urteroko omenaldia egin zieten Uribarriko erretiratuari auzoko elkarteak. 80 urtetik gorako auzotarrek bapoz bazkaldu eta lagun giro apartaz ospatu zuten eguna, aspaldiko kontuak gogoratuaz, lagun taldean.

Upina Valverde eta Eugenio Apaolatza omendu dituzte aurten; lore sorta eta opariak eman zizkieten. 95 urte bete ditu Upina Valberdek. "Gauzak falta zaizkigu, baina bizitzaren legea da, zer egingo diogu ba! Osasuna, oraingoz, badugu, eta aurrera egin behar da. Bost seme-alaba hazi ditut; orain, ilobak eta birrilobak. Uribarrin eta Abaroan zaharrena naiz 95 urterekin. Ea datorren urtean ere etortzerik dudan", kontatu digu Valberdek.

Eugenio Apaolatza 92 urte dituen arren, baso bat ardo edateak tarteka on egiten diola aitortu digu: "Bapoz bazkaldu dugu eta oso gustura egon gara. Burua eta osasuna badaukagu, eta pozik, ezin kexatu. Ilusioa egiten du horrelako ospakizun egun batek. Lagunen aurpegiak aurrez aurre izatea eta eurekin hitz egitea asko gustatzen zait; horrelako eguna aitzakia hartuta primeran ibiltzen gara, nahiz eta urtero norbait falta zaigun mahaiaren inguruan".

Espainiako gerrako kontuak eta soldadutza garaiko anekdotak mahaiaren bueltan gogortzen ibili zirela azaldu zigen Apaolatza. "Guri la quinta del biberón deitzen ziguten gure adinagatik, oso gazteak ginelako; halaxe deitzen ziguten gerra garaian, soldadutzan, eta baita lagun koadrilan gu baino zaharragoak zinenek", kontatu zigen Eugeniok bere umore finari oraindik ere eusten diola argi utzita. Alaba bat eta hiru iloba ditut; gainera, sei birriloba ditugu etxean; entrenimendurik ez zaigu falta.

Guztira, Uribarriko 32 gizonetako eta 22 emakumetako batu ziren urteroko bazkaria egiteko. "Datorren urtean ea leku handiagoa dugun, aurten justu-justuan sartu gara-eta. Egun polita da, gure nagusiek merezi dutelako; bapoz jan dugu, urdaiazpikoa, arrain-zopa, legatza eta postrea, kremazko tututxoak eta, ondoren, kafea denondako".

Jose Luis Plaza da elkarte-ko presidentea; aurten lehenengo antolatuta du, gainera, 80 urtetik gorakoen omenaldia Uribarrin. Pozik hartu duela ardura azaldu digu. "Berria naiz eta oraindik izenekin eta adinarekin nahastu egiten naiz; hala ere, gustura nabil, eta hartuko dut martxa", kontatu zigen, irribarretsu, Plazak.



Upina Valverde eta Eugenio Apaolatza omendu dituzte aurten. | MAIDER ARREGI

Miguel Sagastume soinu-jolea omenduko dute egubakoitzean Santa Marinan

Debagoieneko musika eskolen kontzertuan akordeoia protagonista; 'Urkiko Magoa'-ren June Martin iloba irundarrak eta Joxan Goikoetxeak ere joko dute

EDU MENDIBIL | BERGARA

Debagoieneko musika eskolek egubakoitzean, Santa Marinan, eskainiko duten kontzertuaren barruan, Miguel Sagastume soinu-jolea ezaguna omenduko dute. Aipatutako kontzertua 20:00etan izango da eta bertan hartuko dute parte Soraluzeko Musika Eskolak, Arrasate Musikalek, Eskoriatzako Beheko Errotak, Aretxabale-tako Leizarra Musika Eskolak, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolak eta Bergarako Musika Eskolak hartuko dute parte.


Akordeoia protagonista

Akordeoia izango da egubakoitzeako emanaldiko protagonista nagusietako bat: 90 akordeoilari inguru batuko dira Santa Marina kontzertuan. Irungo Kontserbatorioko seikoteak ere hartuko du parte eta bertan jotzen du Miguel Sagastumeren iloba batek, June Martin 19 urteko gazteak. Era berean, Joxan Goikoetxea ezaguna ere gonbidatu dute omenaldira: Hubert Giraudek konposatutako eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek moldatutako *Bajo los techos de Paris* pieza joko dute June Martinek eta Goikoetxeak.

'Urkiko Magoa', erreferente bat

Miguel Sagastume *Urkiko Magoa* akordeoilari moduan aitzindari eta erreferente bat izan da eta hori nabarmendu dute hain zuzen ere omenaldiko antolatzaileek.

1931n Eibarko Urki baserrian jaioa, Kuban ere musikari ibili zen Miguel Sagastume. 19 urte zituela, amak lagunduta joan zen Kubara, eta lau urte eman zituen Habanako Tropicana kabaret famatuko orkestran. Besteak bes-



Miguel Sagastume, *Urkiko Magoa*, orain dela urte batzuetako erretratu baten.

te, Bebo Valdes famatuarekin aritzen zen han. Orain dela gutxira arte soina jo izan du Miguel Sagastumek, medikuak debekatu egin dion arte.

Kasualitatez, omenaldiaren bezperan, martxoaren 22an, 81 urte beteko ditu *Urkiko Magoa*-k. Musikariek opari polita eskainiko diote egubakoitzeako omenal-

diarekin. Amaieran, partaide guztiek *Viva Mexico* eskainiko dute. Oihan Vega ezagunak egingo ditu aurkezle lanak egubakoitzean.

OHARRAK

ATEZ ATEKOA: HITZALDIA UDALETXEAN GAUR

Hiri hondakinen inguruan herritarrek informatzeko abian jarritako prozesuaren barruan, Hernanin eta Antzuolan bizi diren bergarar batzuek atez atekoarekin izan dituzten bizi-penak kontatuko dituzte gaur, astelehena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Besteak beste, Jon Altuna *Oxan*, Agurtzane Loidi eta Juan Ramon Aranguren *Zarra* izango dira hizlarietako batzuk. Era berean, *Birikatuz sortu* erakusketa jarriko dute ikusgai udaletxean, gaurtik domekara bitartean.

LAB-EK DEITUTAKO BATZARRA BIHAR

Bergarako LABek greba batzordea sortu du martxoaren 29ko deialdiari begira. Herritarrei eta eragileei gonbidapena luzatu nahi diete aipatutako batzordean parte hartzera. Martitzenero elkartuko dira kultura etxean, 18:30ean.

GREBARI BEGIRA, NEKANE JURADOREN HITZALDIA

Martxoaren 29ko greba deialdiari begira, Bergarako gazte eragile talde batek herriko gazteak informatu eta kontzientzia du helburu. Antolatutako ekitaldien artean, Nekane Juradoren hitzaldia iragarri dute eguaztenerako. Hitzaldia Miguel Altunako aretoan izango da, 19:00etan. Hitzaldiaren aurretik elkarretaratzea deitu dute ikastetxe aurrean, 18:30ean.

HITZALDIAK EGUENEAN ELA-KO EGOITZAN

Sindikatu kideei eta lagunei zuzendutako bi hitzaldi egingo ditu ELAko egunean, hilaren 22an. ELAko egoitzan, Ibarra kaleko 26. zenbakian, izango dira, 10:30ean lehena eta 18:00etan bigarrena.

KANTU JIRA ETA KANTU AFARIA JARDUNEKIN

Jardun elkarteak kantu jira eta kantu afaria iragarri ditu egubakoitzerako, martxoaren 23rako. Euskal kantuak sustatzea eta horiek ez galtzea da helburu nagusia. Kantuan aterako dira, trikitilariak lagunduta, 20:00etan San Martin plazatik eta ondorengo afaria Artatse elkartearen izango da. Afarirako txartelak (15 euro), Arranon, Ariznoan edo Jardun elkartearen daude salgai.

1982AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 31N

1982an jaiotakoek bazkaria egingo dute Erramu Zapatuan, martxoaren 31n. Agorrosingo tabernan izango da bazkaria eta martxoaren 22rako 25 euro ordaindu behar dira Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 0198 27 2475491219. Bazkari egunean 12:00etan elkartuko dira Bule tabernan.

Jendeurrean nola hitz egi eta ipuin tailerra

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendeurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Azken hau gurasoak, begiraleak eta orokorean haurrekin lan egiten duen edonoi zuzenduta dago bereziki. Bietan ere plaza mugatuak dira eta izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 zenbakian egin daiteke.





Azken egunotan gasolindegia egokitzeko lanetan izan dira Gureak Taldekoak Osintxun. | E.M.

Gureak Taldeak hartuko du Osintxuko gasolindegia, bihartik

Martxoaren 20an hasiko dira lanean eta lau langilek jardungo dute; Gipuzkoan Gureakek kudeatzen duen zazpigarren gasolindegia da Osintxukoa

EDU MENDIBIL | BERGARA

Irailetik itxita izan ondoren, Gureak Taldeak hartuko du Osintxuko gasolindegia. Gureakeko iturriek baieztatu digutenez, bihar, martitzena, hasiko dira Osintxuko gasolindegian lanean.

Gureak Taldeak ia lau hamar-kada daramatza pertsona ezinduendako lan ekimenak sustatzen. Gasolindegiei dagokienez, Gipuzkoan sei gasolindegia kudeatzen dituzte eta eta Nafarroan zazpi. Gipuzkoan petrolio gas likidotua

(PGL), "etorkizuneko erregaia", eskaintzen duen leku bakarra kudeatzen dute Miramoneko zerbitzugunean, Donostian.

Erregaia saltzeaz gain, beste hainbat zerbitzu eskainiko dituzte Osintxuko gasolindegian: denda, etxeko animaliak garbitzeko lekua, autoa garbitzeko tunela, edota ibilgailuko alfonbra txikiak garbitzeko gunea, besteak beste.

Hasiera batean lau lagunek jardungo dute Osintxun lanean eta egunero zabalduko dute gaso-

lindegia, 06:00etatik 22:00ak bitartean hain zuzen ere. Esan bezala joan den udatik itxita izan da gasolindegia.

Lau eremutan lanean

Gaur egun, Gureak Taldeak gauzatzen dituen jarduerak lau eremutan daude bereizita: industria, zerbitzuak, publizitatea eta marketin zuzena eta laguntza zerbitzuko. ISO 9001:2000 kalitate eta prebentzio sistema martxan jarri zuen estatuko lehen zerbitzugu-neetako bat izan zen Gureak.

Erakusleihoak apaintzeko aukera herriko artistendako

E.M. | BERGARA

Udalak egitasmo bat jarri du abian alde zaharrean hutsik dauden lokal komertzialen erakusleihoak Bergarako artisten artelanez dotoretzeko. Pintoreek, argazkizaleek eta bestelakoek izango lukete lokalak apaintzeko aukera. Betiere, erakusleihoetara egokitutako lanak izango liriteke. Bedelkarko kideek pozik jaso dute erronka. Herri barruko eguneroko jarduera piztea eta erdiko kaleei bizitasuna ematea dira helburuak, eta, uda parteko turismo denboraldiari begira, herriko artistei lokal horietan *aktuatze*ko aukera eman nahi zaie.

Izen-ematea zabalik

Ekimenean parte hartu nahi duen Bergarako edozein artistak du aukera, eta Udalak parte hartzea gonbidatzen ditu. Informazioa jaso ahal izateko, zuzendu Beart herriko artisten elkartera (635 71 32 69 telefono zenbakia) edo kultura etxera (943 77 91 58). Izen-ematea martxoaren 26ra arte izango da.

Bestalde, proiektuan parte hartu nahi duten alde zaharreko eta itxita dauden 25 lokal komertzialek izena eman dute dagoeneko. Udaletik dei egin nahi diete proiektu horren berri jaso eta oraindik erabakirik hartu ez duten lokal komertzialen jabeek izena emateko.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainketa

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2012. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Egun horretatik aurrera errekaruarekin eskatuko da.


Udaletik aditzera eman dutenez, helbideratutako erreziboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean.

Edozein argibidetarako udaletxera jo dezakete interesatuek astelehenetik egubakoitzera, goizez, 14:00ak arte, edo kontu-hartzaitzako 943 77 91 64 zenbakira deituta.

Eguaztenean odol ateratzea egingo dute ambulatorioan

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak deituta, odol ateratzea egingo dute etzi, eguaztana, ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Odolaren beharra azpimarratu dute azken asteotan osasun arduradunek, eta, hori dela eta, parte hartzeko dei egin dute herriko odol emailleek.

Urte hasieran hainbat aldaketa egin zituzten zuzendaritzan, eta honako hauek dituzue elkartearrekin harremanetan jartzeko telefono berriak: Antonio Herzog da arduradun berria (669 10 89 77 edo 943 76 36 90). Eta Dulce Rodriguez izendatu dute elkarreko idazkari: 628 07 97 72 edo 943 76 22 36.



Atez atekoaren aurkako sinadurak biltzen dihardute

Atez ateko sistemaren aurkako eta bosgarren edukiontzia aldeko sinadura bilketa jarri dute abian hainbat herritarrek. Udal Gobernuak martxoaren 26ko osoko bilkurara eramango du atez ateko sistemaren onarpena, eta, horren aurrean, herriko hainbat komertziotan atez atekoaren aurkako sinadurak batzeari ekin diote. Bultzatzaileek aditzera eman dutenez, martxoaren 26ko osoko bilkura horren bezperara arte ahalik eta sinadura gehien batzen ahaleginduko dira. Anonimotasuna mantendu nahi dute, eta, haien arabera, baliteke alderdi politiko baten bitartez aurkeztea jasotako sinadurak udaletxean.



Bizikleta proiektzioak Irizarren

Bizikleta Astearekin jarraituz, bihar, martitzena, *Serbia eta Montenegro* hitzaldi proiektzioa izango da, Edu Morenoren eta Iker Osa bergararren eskutik; etzi, eguaztana, Esteban Olaortua eta Aitor Gabilondo antzularren *Frankfurt-Varsovia 2011*; eguenean Urdin eta Izaro elgoibartarren *1.000 milla 2007-2011*; eta egubakoitzean Moreno, Gabilondo eta Osarekin *Ulambaatar-etik Beijingera*. Emanaldi guztiak Irizarren, 19:00etan.

Maliko umeendako janari bilketa egingo du Oñatiko Misio Taldeak

Gaurtik hilaren 31ra arte jasoko dituzte jakiak herriko supermerkatu eta ikastetxeetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeak elikagai bilketa berezia egingo du, gaur hasita. Hilaren 31ra arte Maliko San elizbarrutian dagoen Togo herriko ikasleendako janaria batuko du. Herriko supermerkatuetan (Eroski, Super BM, San Migel kooperatiba, Dia eta Matea) eta Elkar Hezi, Errekalde Herri Eskola eta Txantxiku Ikastolan batuko dituzte arroza, irina, pasta eta azukrea.

Bi astean jasoko duten materiala Mali Elkartasuna taldeak maiatzerako prestatu duen edukiontzian bidaliko dute. "Ikasleei jaten emateko lursailak dituzte, baina iazko uzta oso txarra izan zen eta elikagai barik geratu dira. Hori horrela, janari bilketa egitea erabaki dugu", esan digu Amaia Ugarte, misio taldeko kideak

Togo herrian dagoen Saint Paul ikastetxean barnetegi bat dago. Ikasleen herritik eskolara kilometro asko daude. "Aste osoa barnetegian egiten dute, bestela ez lukete aukerarik izango eskolara joateko. Hango lursailak erabiltzen dituzte hainbat produktu landatzeko, baina iaz ez zuten elikagairik jaso. Egoera larrian daude, eta gure laguntza behar dute", esan digute.



Joxan Larrañaga, lehena ezkerretik, Malira egindako bisitan. | JOXAN LARRAÑAGA

Mali Elkartasuna

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldearen helburuetako bat eskal misiolariak aurkeztutako proiektuei laguntza ematea da. Orain arte, Benin, Paraguai, Dominikar Errepublika, Haiti

eta Argentinako proiektuekin egindako moduan, oraingo honetan, Maliko proiektuan burubelari dihardute. Aurrekontua 31.000 eurokoa da, eta misio taldearen asmoa da 25.000 euro lorzea.

JOXAN LARRAÑAGA | PARROKOA

"Mijoa da haien oinarrizko elikagaia, eta, uzta txarrarekin, barik geratu dira"

Joxan Larrañagak Mali Elkartasuna delako taldea sortu du. Urtarrean egon zen han, proiektuen berrijasotzeko.

Zer moduz doaz hango lanak?

Ondo. Saint Paul ikastetxean neskendako logela eta ikasleendako jangela bukatuta daude, eta ohatzeak (literak) muntatu dituzte. Bestalde, Maisutzakoen barnetegian jangela egiten hasi dira. Caritasen eraikuntzaren egitura egin da dago, eta teitlatua ipini, margotze lanak egin eta ekipamendua ipintzea falta da.



Larrañaga. | J.LARRAÑAGA

Nolako egoera bizi dute Malin?

Uzta garai txarra izan dute eta elikagai barik geratu dira. Euren oinarrizko janaria mijoarekin (artoarekin) egiten dute: oreak egin, eta hainbat saltsarekin jaten dute. Horregatik bidaliko ditugu oinarrizko elikagaiak. Hango ikasle bakoitzak, urte osoan, egunero jatordu bat egiteak 47 euro balio du eta bi jatordu egiteak, 60 euro. Ez da dirua; horregatik, asko eskertzen dugu gure bazkideek eta tokian tokiko kanpainak ematen diguten laguntza.

go ikasle bakoitzak, urte osoan, egunero jatordu bat egiteak 47 euro balio du eta bi jatordu egiteak, 60 euro. Ez da dirua; horregatik, asko eskertzen dugu gure bazkideek eta tokian tokiko kanpainak ematen diguten laguntza.

Saint Paul eskolaren proiektuan lanean dihardu Joxan Larrañaga parrokoa, Saint Paul ikastetxeko zuzendari Herve Tierourekina batera.

Larrañagak beste lagun batekin Mali Elkartasuna taldea sor-

tu zuen (www.malielkartasuna.com). Hainbat proiektu dituzte Malin. Oñatiko parrokoa urtarrean egon zen han: Saint Paul ikastetxea, Caritasen eraikuntza izango dena eta Maisutzakoen barnetegiko proiektuak ikusten.

Bertsogintza femeninoa eraikitzen laguntzeko saioa egingo dute egubakoitzean

M.B. | OÑATI

Berdintasuna Herrijorran egitarauaren barruan, *Ez da kasualitatea* saioa egingo dute hilaren 23an Santa Ana aretoan, 22:30ean. Ainhoa Agirreazaldegia, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Arantzazu Saiz piano-jotzaileak egingo dute saioa. Egoitz Aizpuru izango da gai-jartzailea.

Sarrerak salgai daude dagoeneko: Oñati tabernan eros daitezke bost eurotan.

"Zatoz intentzioz"

"Ez da kasualitatea bertso saio hau antolatuz izana; beraz, bertso saiora etortzera animatzen bazara, ez dadila kasualitatez izan. Zatoz intentzioz", esan dute antolatzaileek.

Herri onurako basoen inguruko hausnarketa bultzatzeko batzarrak

M.B. | OÑATI

Basogintza Herrijorran egitasmoaren barruan, gaur egungo kudeaketaren eta etorkizuneko basoen kontserbazio eta kudeaketarako ildoen inguruan eztabaidatzeko, hiru batzar antolatu ditu Udalak: hilaren 19an, 26an eta apirilaren 2an, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Batzarrak irekiak dira, eta

herriarenak diren basoen inguruko "kezka" duten herritarrek gonbidatu dituzte.

%34 basoak dira

Natur Eskolak Ingurumen Astearen emandako datuen arabera, Oñatiko udalerriak 10.746 hektarea ditu: %75 zuhaitzez estalita. Horietatik %66 landaketak eta %34 basoak dira.

'Invisibles' argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, Javier Gilen *Invisibles* argazki erakusketa zabalduko dute gaur, 18:00etan. Egilea inaugurazio ekitaldian egongo da. Madrildarrak Thailandiak bizi dituen hazkunde geldiezinak sortutako arazoak jaso ditu formatu handiko 13 argazkitan.

Erakusketa zabalik egongo da apirilaren 2ra arte.

Errekaldekoak, tren ibiltarian

Errekalde Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, tren ibiltaria egin dute. Ikasleak oinez joaten dira ikastetxera, taldeka eta gurasoen laguntzarekin. "Oinez joateko ohitura indartu eta bultzatu gura dugu", esan digute Errekaldeko kideek. Mugikortasunaren gaia jorratzen dihardute ikastetxean.



JON MIKEL LARRAÑAGA

Martxoaren 29ko grebaren gaineko hitzaldi bikoitza

ELA sindikatuak hitzaldi bi egingo ditu asteon, martxoaren 29ko grebaren nondik borakoak azaltzeko. Biak ala biak egingo dituzte hilaren 21ean, eguaztenean: bata, 10:30ean, Oñatiko ELAren egoitzan; eta bestea, 20:30ean, kultura etxean.

ELAko kideak eta lagunak gonbidatu gura dituzte batzarretara.

ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalera ere heldu da zabor bilkura sistemaren gaineko eztabaida

Garapen batzordean eztabaidatzeko eta parte-hartze prozesua bultzatzeko konpromisoa hartu dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eztabaidatsua izan zen eguen iluntzean Eskoriatzako udaletxean egindako ohiko osoko bilkura. Besteak beste, zabor bilketa sistemari buruz egin zuten berba han, eta alderdi bakoitzak bere posizioa defendatu zuen.

PSE-EE udal taldeak atez atekoaren kontra aurkeztutako mozioak piztu zuen eztabaida. Jose Luis Cantero zinegotziak Udala Gobernuak ezarri nahi duen atez ateko sistemaren arbuiztea eskatu zuen, besteak beste, "zikina,

antiestetikoa, garestia, deserosoa eta ez eraginkorra" delako. Mozio horri aurre eginez, Ezker Anitzak beste mozio bat aurkeztu zuen. Juan Luis Merinok zaborraren %70 gutxienez birziklatua izan dadin, "beharrezkoak" diren neurriak hartzea proposatu zion Udalari, eta horren harira, Eskoriatzako martxan jarri behar den sistema aukeratu aurretik, parte-hartze prozesua zabaltzea eskatu zuen.

Ingurumen zinegotzi Leire Urtzelaik azaldu zuen lanean dihardutela Debagoieneko Man-

kunitatean. Gipuzkoan orain arte atez atekoa jarri duten herrien plangintza jarraitzeko asmoa dutela esatearekin batera, maiatzeko osoko bilkuran horren gaineko erabakirik hartu aurretik, Garapen batzordean zabal lantzeko aukera egongo dela aipatu zuen.

2013ko irailerako

Beñat Herce alkateak bakoitzaren proposamenak esandako batzordea errotara proposatu zuen; baita herrian osatzekotan dabiltzan 0 zabor taldearena ere. Horrekin

batera, Eskoriatzako datorren urteko irailean atez atekoa ezartzeko asmoa dagoela, eta hortaz, eztabaidatzeko eta "Antzuolan bezala" parte-hartze prozesua egiteko denbora dagoela esan zuen.

EAJtik, Aitor Urrutiak PSE-EEren mozioaren alde bozkatuko zuela jakinarazi ostean, galdera zehatza duen kontsulta egitea proposatu zuen: Atez atekoa bai ala ez?. Informaziorik ez dutela jaso eta maiatzeko osoko bilkuran berri, esaterako, prentsaren bidez jaso zuela salatu zuen.

Eztabaidaren ostean, mozioak bozkatu zituzten. Ezker Anitzarena onartu zuten, talde horren eta Bilduren oniritziarekin. PSE-EE taldeak aurkeztutakoak, ostera, Jose Luis Cantero eta Aitor Urrutiaren aldeko botoa jaso zuen. Elizateetako ordezkariak abstenitu egin ziren mozio bietan.

Olazarko prezioak

Bestalde, egueneko osoko bilkura berean Olazar erretiratuen tabernako prezioak aldatzea aho batez onartu zuen udalbatzak. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Arantza Iregik azaldu zuen egoitzako bazkideak ez direnek ere herriko gainerako tabernetan baino gutxiago ordaintzen dutela orain; prezio berezirik ez dutela izan behar, eta hortaz, bestelako tabernak kontuan hartuta, bezero horien dako prezioen zerrenda berria onartu zuten.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Eguenera arte eman daiteke izena etorkinendako euskara ikastaroan

Ikastaroa Aste Santuko oporren ostean hasiko da, eta ekainean amaitu

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako eta Aretxabaleteko Udalen eta Leintz Udala Euskaltegiak elkarlanean, AISA izeneko ikastaroa jarri dute martxan ostera ere. Izena eman nahi duenak eguena, martxoak 22, baino lehen egin beharko du esandako udaleko euskara eta gizarte zerbitzuetara joanda. Ikasle bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu ikastaro hori egiteagatik; materialaren gastua, aldiz, Udalek bere gain hartuko dute: hain justu ere, 17,5 euro ikasle bakoitzeko.

Ikastaroa 60 ordukoa izango da eta izena ematen dutenen artean adostu beharko da zein egun eta ordutan ematen diren eskolak; dena dela, antolatzaileek jakinarazi dute asteen hiru egunetan izango direla horiek, eta egun bakoitzean bi ordu. Ikastaroa



Etorkinendako ikastaroa. | GOIENA

apirilaren 16ko asteen hasiko eta ekainaren 25ekoan amaituko dela gaineratu dute.

Euskarara hurbildu nahi duten etorkinendako harrera-ikastaroa

da, euskara ikasteko oinarrizko ikastaroa, Debagoienean bizi diren eta euskararekin harremanik izan ez duten 16 urtetik gorako etorkinei zuzendutakoa.

ESKORIATZA

Salamancara doaz erretiratuak apirilean

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako erretiratuen elkarteak Salamancara bidaia antolatu du; hain justu ere, *Ruta de la plata* izeneko ibilaldia egingo dute apirilaren 9tik 15era bitartean.

Interesa dutenek hiru egun dituzte izena emateko: bihar, martitzena; eguena, hilak 22; eta martxoaren 27an. Erretiratuen egoitzan eman behar da egun horietan izena, 11:00etatik 12:30era bitartean.

390 euro

Olazartik jakinarazi dute bidaia horren prezioa 390 euro dela pertsona bakoitzeko. Honako tokiak bisitatuko dituzte eskoriatzarrek bidaia horretan: Salamanca, Alba de Torres, Arribes del Duero Parke Naturala, Bejar eta Candelario, Zamora eta Jerteko harana.

OHARRAK

ESKORIATZA

TAILERRA

Asteotan Udaletik antolatutako *Bikoteko gatazkak, krisia edo aukera?* tailerra egiten dabilta. Etzi, eguaztena, egingo dute bigarren saioa herriko kultura etxean, 18:00etatik 19:30era. Hirugarren saioa martxoaren 28an izango da ordu eta toki berean.

IPUIN KONTALARIA

Eguenean, hilak 22, umeendako ipuin kontaketa dago Udala Liburutegian, 18:00etan.

DARDO JOLASA

Tortolis ludotekan dardo jolasa dute eguenean, 18:00etan.

IKASTAROA

Larrialdien aurrean nola jokatu behar den jakiteko oinarritzko ezagutzak eskainiko ditu DYAk martxoaren 27an, 18:30ean, kultura etxean egingo duten berbaldian.

ARETXABALETA

BERBALDIA BASOTXON

Otsailaren 14koa egitekoa zen *Adineko gizonak eta zaintza: Nork bere burua eta gainera-koak zaintzea* izeneko berbaldia eskainiko du Josetxo Rivierek eguenean, hilak 22, 17:00etan, Basotxoren egoitzan. Hitzaldi horren helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientzia daitezela eta horretan parte har dezatela sustatzea.

LIBURU AZOKA

Irakurketa aste dela-eta, Lora-mendi euskara elkarteak euskarazko liburu eta disko truke azoka egingo du apirilaren 23tik 27ra. Horretan parte hartzeko liburu edo diskoa eroan behar da Loramendira, eta, trukean, txartela emango dute. Txartel hori liburu edo disko bategatik aldatu ahal izango da azokan.

ARETXABALETA

Basabeazpiko umeek ipuin musikatu egin zuten

Egubakoitz goizean ekitaldi berezia izan zuten Aretxabaleteko Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneko umeek. 2 eta 6 urte bitarteko hurrek ipuin musikatu egin zuten Gasteizko musika kontserbatorioko musikariekin batera. Guztiek adi-adi jarraitu zuten ipuina, eta gustura abestu zuten zuzeneko musikarekin.



AMAIA TXINTXURRETA



Aramaio Ai Ene! koadrila, martxoaren 11n Araian jokaturako finalerdian; finala, etxean. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

ARAMAIO

Arabako koadrila onenak izendatzeko final handia egingo dute zapatuan

Idatzikoan Aramaio Ai Ene! eta Gasteizko Martin Ttipia lehiatuko dira eta bat-batekoan, berriz, Aiaraldeko Altubepekoak eta Aguraingo Sorginetxe

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Zapatuan amaituko da Arabako koadrila arteko bertso txapelketa, Aramaion. Duela bi urte Aramaiokoa izan zen koadrilarik onena bat-bateko modalitatean, baina aurten Aramaioetik bi koadrilek parte hartu badute ere, ezingo da orain bi urteko lorpena errepikatu. Aurten bat-bateko finalean Aiaraldeko Altubepekoak eta Aguraingo Sorginetxe koadrilek hartuko dute.

Hori bat-bateko modalitatean izango da, idatzikoan Aramaio izango du-eta ordezkariak: Aramaio Ai Ene!. Azken txapelketa ere finalera heldu ziren baina ezin irabazi; ea aurten arantza hori kentzeko aukera duten. Ez da lan erraza izango, Martin Arriolabengoa taldeko kidearen arabera aurkari izango duen Gasteizko Martin Ttipia koadri-

lak "oso maila altua" duelako: "Bertsoa nola abesten den, ondo antzeztu den... Hainbat detaile hartzen dira kontuan, bertsoaren edukiaz haratago doazenak. Eurak oso ondo abesten dute eta antzeztzerako orduan ere trebeak

dira. Ahaleginak egingo ditugu irabazteko, baina lehen helburua lan txukuna egitea da, eta noski, ondo pasatzea".

Araba osoa Aramaiora

Arabako bertsozale elkarteak jai handia egin gura du zapatutarako. Hala, doako autobusak jarri dituzte Arabako txoko ezberdinetatik, besteak beste, Laudio, Amurrio, Agurain eta Gasteiztik. Saioaren prezioari dagokionez, frontoian egingo den herri bazkarirako eta bertso saiorako sarreraren prezio arrunta 25 eurokoa da; elkarteo bazkideendako 20 euro eta 16 urtetik beherakoendako, berriz, 15 euro. Final handia bakarrik ikusteko zazpi euro da prezio arrunta; bazkideek bost euro ordaindu behar dute eta 16 urtetik beherakoek, azkenik, doakoak izango dute sarrera.

FINAL HANDIRAKO EGITARUA

ZAPATUA, HILAK 24

12:00 Bertso poteoa plazatik.

14:30 Bazkaria, frontoian.

17:30 Finala, frontoian.

Bazkarirako sarrerak: Gasteizko Amaia zentroan, Aramaio Eki tabernan eta internet-en: www.arabakotxapelketa.org.

ANTZUOLA

Alkoholikoen senide eta lagunen elkarteak antolatutako hitzaldia

Askotariko esperientziak entzuteko eta partekatzeo aukera egongo da solasaldian

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Al-Anon elkarteak, alkoholikoen senide eta lagunen elkarteak, antolatu du hitzaldia martxoaren 31rako. Olanaren izango da, 19:00etan. Bertan izango da Kristina Saenz psikiatra. Baita Alkoholiko Anonimoak elkarteo ordezkari bat ere; bizipenak partekatzeo aukera izango da.

Grimm anaien ipuinak

Bihar, martitzena, berriz, Ahozko Kontaketaren Nazioarteko Eguna da. Hala, Oihulari Klownek heldu eta haurrendako ipuin kontaketa saioak egingo ditu Torresoroan, 19:30ean. Aurten, gainera, Grimm anaiek *Cuentos para la infancia y el hogar* libu-

rua argitaratu zutela 200 urte bete dira. Hala, Grimm anaien ipuinak hainbat hizkuntzatan kontatu eta grabatuko dituzte.

Alardearen gaineko inkesta

Bestalde, Mairuaren Alardearen inkesta betetzeko azken eguna da bihar. Hutsegite baten ondorioz, Interneten gaztelaniaz bakarrik betetzeko aukera zegoen, baina zuzenketa egin eta euskarazko bertsoa ere sartuta dago Udalaren webgunean: www.antzuela.com. Helburua da 2009an alardeari egindako aldaketek herritarrengan zein harrera eta eragin izan duten jakitea; baita alardearekiko jarrera zein den ere.

ELGETA

Lehenbailehen eman behar dute izena zaintza zerbitzua gura dutenek

Gutxieneko haur kopurua behar da, eta Udalak batzar irekia deitu du eguaztenerako, hilak 21

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Guraso erabiltzaileekin bi batzar egin ostean, Elgetako Udalak mahai gainean du ludoteka zerbitzuari jarraipena emateko proposamena. Aurrerantzean, bi zerbitzu bereiziko ditu; zaintza —hilean 90 euro— eta ludoteka —hilean 40 euro.

Ludoteka zerbitzua ohiko aisialdi zerbitzua da; aldiz, zaintza zerbitzuak bestelako aukerak ematen ditu: haurra eskolan jasotzea eta ludotekara eramatea eta ludotekan merienda ematea. Zaintza zerbitzuari jarraipena emateko gutxienez bost umek eman beharko dute izena. Zerbitzu biak ordutegi eta egoitza berean emango dira.

Zenbait erabiltzailek premia dute apirilean zerbitzuak jarraipena izango duen edo ez jakiteko. Hala, Udalak interesatuei lehenbailehen izena emateko eskatzen die. Batzarra ere deitu du: eguaztenean, martxoak 21, egingo dute, udaletxean, 19:30ean hasita.

Eguneko zerbitzua aukeran

Apiriletik aurrera, orain ez bezala, eguneko zerbitzua eskatzeko aukera ere egongo da. Horretarako, gurasoek bezperan eskatu beharko dute, ludotekan edo 663 514 314 telefono zenbakira deituta. Prezioa 6 euro da zaintzarako eta 3 euro ludotekarako. Kobrantza Udalak egingo du hil amaieran.



Elgetako haurrak mozzorrotuta. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Produktu ekologikoen azoka dago Mundumiran

Slow Food gastronomiaren gaineko azoka izango da horrekin batera munduko kulturen jain

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 18tik 20ra bitartean Gatzagan eta Eskoriatzan ospatuko duten Mundumira jaialdi barruan, Slow Food gastronomiaren eta produktu ekologikoen gaineko lehenengo azoka egingo dute, Gatzagan.

Bertan parte hartzeko aukera izango dute produktu ekologikoak egin edo baserriko produktu freskoak dituztenek, eta janari begetarianoak ekoiztu edo kontsumitzaile kooperatiba bateko kide direnek. Argibide gehiago gura izanez gero info@mundumira.com helbidera idatzi behar da edo honako telefono zenbakira deitu: 902 18 14 71. Saltokiak jartzearen truke ez dutela kobratuko esan dute antolatzaileek.

Bestalde, artisautza azokan postua jarri gura dutenek zaba-

lik dute izena emateko epea —info@ginmusica.com edo posta bidez Ginmusica: Peña eta Goñi 16, behea 20.002 Donostia—. Apirilaren 27a izango da horretarako azken eguna eta eskaera orria Udalaren webgunean —www.leintzgatzaga.com— eta mankomunitatearenean —www.turismodebagoiena.com— dago eskura.

Umeen gunea ere Gatzagan

Bi azokak eta beste hainbat gune egongo dira Gatzagan bertan: umeen esparrua, zirku-tailerrak eta abentura atala. Gaueko kontzertu handiak, ostera, Eskoriatzan egingo dituzte. Aurreko urteetan beste herri batzuetan egindako moduan, egun guztian autobus zerbitzua egongo da Eskoriatzatik Leintz Gatzagara.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



JAKION
Jakionek emandako
Produktu sorta*

* Jakioneko produktuz osatutako otarra.

Santu egin zuteneko mendeurrena ospatuz, orain dela 50 urte, orotarri hori eraiki zuten Zurragako mendixkan. Zein herritan eta zein santuren omenez?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
E-postaz: kluba@goiena.com

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

MARTXOKO SARIAK

SARRERAK

Sortuko dira besteak
XABIER LETE GOGOAN
kantaldirako sarrerak.

Arrasateko Amaia antzokian.
Martxoak 31ean, 19:00etan.
10 gonbidapen bikoitzak ditugu.



PARTE HARTZEKO:

SMS bidez: Bidali KLUBA SARRERA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zkira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com



SARRERAK

EUREKA MUSEOA ikusteko
gonbidapenak. Zozketa suertatu
ondoren hiru hilabeteko epea
duzue joateko. Pertsona
bakoitzendako bi gonbidapen.



PARTE HARTZEKO:

SMS bidez: Bidali KLUBA EUREKA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zkira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com



SARRERAK

MARKELIÑE taldearen
"Hareazko ipuinak"
antzezlanerako gonbidapenak.
Arrasateko Amaia antzokian.
Martxoak 25ean, 17:00etan



PARTE HARTZEKO:

SMS bidez: Bidali KLUBA ANTZERKIA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zkira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com

2012an
atera etekina
txartelari

gahir fisioterapia
osteopatia

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41

■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89

■ -%15 zerbitzu guztietan.

ETA HAUETAN ERE BAI

AVIARIVM

LiLURa
EDERTZE INSTITUTUA

Argia

JAIXAK
disfrutatzeko oparixak

AVIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

BEGO

RENAULT
AUTOBERRI

gahir fisioterapia
osteopatia

GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentruak

Esko Sport

IKER
SUKALDEAK

guztiz



lastai



eureka!
zientzia
museoa

IZENADUBA
BASOA

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztea.

Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Azken unean lortu zuen Aretxabaletak garaipena, Oruetaren gol bikain batekin

Bigarren zatian talde biek izan zituzten golak egiteko aukerak

EMAITZA

UDA
1-0
ALOÑA

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Agirregabiria, Oianguren (Eraña, 68 m.), Etxabe, Arriaran, Kerman, Gilen Mar, Badillo, Arrizabalaga (Orueta, 68 m.), Oxel Apraiz, Perez (Arrizabalaga, 80 m.) eta Hernandez (Iker Sanchez, 50 m.).

Aloña: Aginagalde, Bengoa (Martin, 69 m.), Endika, Olalde, Mendoza, Millas (Zubia, 69 m.), Idigoras, Palacios, Juaristi (Lizarrá, 85 m.), Bikuña (Garmendia, 76 m.) eta Ugarte.

Bestelakoak: Epailera, Estebanez. Aloñako Bengoa, Endika eta Millas eta UDAko Oxel Apraiz eta Gilen Marri ateratzen baxtelak. Atsedendakian, Gorka Iturbe eta Iñaki Urribetxe berriz jokalaririk ez eta Angel Zubillaga zuzendaritzako kide ohiak UDAko intsignia jaso zuten.

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA

Talde bien bufandak jantzita zeramala eta partidua amaitzear zela, oihuka ari zen Manolo Vieites Oñatiko jarraitzaile ezaguna: "¡¡¡Esto parece un partido de amigos!!!". Eta orduan iritsi zen partiduko gol bakarra, derbia UDAREN alde erabaki zuena: *Piru*



Juaristi oñatiarra eta Aitor Perez aretxabaletarra borrokan atzoko derbian. | JOSETXO ARANTZABAL

Oruetak area ertzetik sekulako gola egin zuen, etxeko zaleen gozamenerako. Partidua berdinketarekin amaitu zitekeen, baina etxean geratu ziren hiru puntuak. Kolpe latza oñatiarrendako; esku hutsik joan ziren Ibarrik. Aloñak izan zituen gol aukerak baita (horietako bat golaren aurretik justu), baina azken metroetan ez zuten asmatu. Kiroltasunez, Aloña

ko jokalaria bat baino gehiagok zoriondu zuen *Piru* Orueta aldagelatar bidean. Golak merezi zuen, bai.

Bigarren zatia ikusgarriagoa

Lehen zatia nahiko aspergarria izan bazen ere, Oxel Apraizek izan zuen gol aukerarik onena, 40. minutuan. Area ertzetik ezkerrez jaurti, eta Aloñako

atezainak baloia justuan ukitu ondoren, zutoinean jo zuen. Bigarren zatia ikusgarriagoa gertatu zen. Olalde ez zuen asmatu korner bat buruz erramatatzerakoan, 65. minutuan, eta 73. minutuan Iker Sanchezek barnealdi polita egin zuen baina kanpora joan zitzaion errematea. Aulkitik zelairatutako Sanchez eta *Piru* Orueta eraba-



'PIRU' ORUETA
ARETXABALETA

"Bai, amorrus ospatu dut gola azkenaldian lesioekin eta ez dudalako zorte onik izan. Nire ustez, merezita irabazi dugu, gol aukera garbienak gureak izan direlako. Baina argi geratu da derbiak ez dira inoiz errazak izaten".



ANDONI AZKARGORTA
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Gutxienez, puntu bat lortzeko meritua egin ditugula esango nuke. Gola iritsi den momentuan epaileari protestaka nengoen. Edozelan ere, taldea lan ona egiten ari da. Amaieran, lur jota ikusi ditut jokalariek aldagelatan".

kigarriak izan ziren etxekoen-dako. Sanchezek 2-0eko egiteko zorian egon zen luzapenean: bi jokalaria atzean utzi eta, ate aurrean, bakarrik, Aloñako atezainak urrundu zuen baloia.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bederatzi jardunaldiren faltan, permanentzia ziurtatuta Bergarak

E.M. | ARRASATE

Bergarak 1-0 irabazi zion zapatuan Oñartzun taldeari. Saillkapeneko bosgarren tokian dago Oñartzun eta, teoriarik behintzat, partidu

zaila zen etxekoendako, baina mahoneroek maila ona erakutsi zuten. Aitor Oregik egin zuen partiduko gol bakarra, 25. minutuan. Zapatuko garaipenaren



Partidu txukuna egin zuten mahoneroek zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

BERGARA
1-0
OÑARTZUN

ostean 9. postuan da Bergara eta dagoeneko ziurtatuta daukate mailari eustea.

Gazteen erantzun ona

Liga hasiera nahiko kaskarra izan bazuen ere, ibilbidea zuzendu du Bergarak azkenaldian eta, esan bezala, lasaitasunez jokatu ahal izango dituzte mahoneroek ligako azken partiduak. Gainera, aurten izandako baja mordoa dela eta, gazteek hartu dute protagonismoa eta erantzun bikaina eman eman dute, zapatuan jokatzerik ez zuten Asier Beitia eta Josu Diaz tartean.

Hurrengo jardunaldian Behobiari bisita egingo dio Bergarak.



Imanol Cabanillas kapitaina. | JA.

Behobia saillkapeneko 15. tokian da eta beraz gora egiteko aukera daukate bergararrek. Aloñari hiru oñatuko alde ateratzen dio Bergarak (37 puntu) eta aurretik Beti Gazte (39), Berio (41) eta Aretxabaleta (43) ditu. Agorro-singo hurrengo bisitaria Roteta *kolista* izango da.

ARETXABALETA

Kadete mailako neurketa bertan behera istiluengatik

Aretxabaletak eta Eibartarrak lehen mailako kadete taldeek atzo jokatutako partidua bertan behera utzi zuten, 17 minuturen faltan, talde bateko eta besteko gurasoen artean izandako istiluengatik. Momentu horretan 0-3 ziren aurretik eibartarrak eta bi taldeetako ordezkariak ontzat emango dute emaitza hori Gipuzkoako Federazioaren artean. Ertzaintzak ere joan behar izan zuen Ibarra atzo goizean, zaleak baretzera. UDAko iturriek baieztatu digutenez, ez dute inolako salaketarik jarriko talde biek eta, esan bezala, 0-3ko emaitza ontzat emango dute. Eibarko jokalaria bat zaurituta gertatu zen baita eskuarrekin aldagelako kristal bat hautsi eta gero.

OHOREZKO ERREGIONALA

Jokalari berriekin ere, lehengo arazo berberak

Baja garrantzitsuekin jokatuta galdu zuen Mondrak Aurreraren kontra; ez zen joko onik egon

EMAITZA

MONDRA
1-2
AURRERA

FITXA TEKNIKOAK

Mondra: Ruiz de Azua, Aitor (Lander, 62. min), Alain, Calzon, Loiti (Zabala, 12. min), Mikel (Moreno, 73. min), Crespo, Pavon (Jon, 78. min), Ormaetxea (Lopez, 51. min), Aizpurua, Lopez Rekarte.

Aurrera: Igor, Barrenetxea, Badiola, Burgoa, Arkotxa, Ganboa, Laka (Iraitz, 89. min), Mendizabal (Badiola, 53. min), Uribesalgo, Gabilondo (Larrinaga, 80. min), Lema (Mikel, 58. min).

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Kategoriari eusteko bidean atzerapausoa egin du Mondrak. Eta zintzoak izateko, atzerapauso handia izan da. Aspaldian Mondrako entrenatzaile izateko malabareak egiten jakin behar da, eta horretaz jabetzen hasi dira Murua, Garin

eta Zaitegi. Lehengo entrenatzaileek mila arazo izan zituzten behar den moduko hamaikako bat zelairatzeko -bakoitza bere lekuan-, eta jende berria etorri bada ere, hori ez da aldatu. Merkader zigortuta, Zaitegi kanpoan, Pitu min hartuta eta Loiti hamargarren minutuan aldagelara, hura ere lesionatuta. Horrela zaila da dinamika bati eustea.

Baina horiek ez doaz aitzakia moduan. Gatzik gabeko lehenengo zatian Ondarroakoek egin zutena baino min handiagoa egin zezaketen, haize zakarra alde zutelako. Ondarroako Ruben Gabilondok erakutsi zuen arriskutsua zela, eta berea izan da partiduko lehenengo gola (42. min).

Bigarren golak egin zuen min handiagoa, bigarren zatia hasi eta berehala: Mondraren aldeko falta garbi bat ikusi ez eta kontraerasoan egin zuten kanpotarrek 0-2koa. Handik aurrera bihotzaz egin zuen bultza Mondrak, baina gol aukera garbi barik. Kalitate zertzelada baten Aizpuruak gol ederra egin zuen, 1-2koa, baina beranduegi zen, 87. minutua zen-eta. Gainera, epaileak ez zuen luzapena errespetatzeko asmorik erakutsi.



Rekarte, Aurrerako kontrario artean. | XABIER URTZELAI

AITOR LOPEZ REKARTE | MONDRAKO JOKALARIA

"Oraindik posible dela sinistuta gaude"

Aitor Lopez Rekartek ez zuen amestutako debuta izan Mojategin. Partidu osoa jokatu zuen, baina giharretako arazoekin amaitu zuen lehia.

Rotetako emaitza ez duzue biribildu, atzerapausoa da hau.

Hori zen asmoa, baina eurek plan-teamendu ona egin dute, eta guk ez dugu gure puntua aurkitu. Bigarren golean atzean sartu dira eta



Rekarte. | X.U.

lasai jokatu dute. Guk gola egin dugu, baina ez dugu arrisku handirik sortu.

Oraindik posible da.

Gu baiezkoan gaude. Gaur jendea lur jota dago, baina astelehenetik aurrera lan egitea tokatzen da. Uste dut badugula hemendik irteteko taldea, baina dinamika aldatu behar dugu, eta azkenerraino egin behar dugu lan.

EMAK. BIGARREN MAILA

Mondrak lasaitasuneko puntuak batu ditu Aurreraren kontura

Gasteizko Aurrera taldearen zelaian 0-3 irabazi zuten Mondrako neskek domekan. Sailkapenean pare-parean zeuden, eta Arrasatekoek aurrera egin dute orain. Alaine Roak egin zuen lehen gola, eta Maitane Roak beste biak.

ERREGIONAL PREF.

Antzuolari aurrea hartu dio Soraluzek, zapatuan irabazi ostean

Aurrealdeko postuetatik aldentzen jarraitzen du Antzuolak. Soraluzeren zelaian 1-0 galduta antzuolarrak sailkapenean erdialdean daude orain. Aretxabaleko bigarren taldeak balio handiko hiru puntu ekarri zituen Zestoari 2-3 irabazita.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Arizmendiko neskek 3-1 irabazi zioten Zumaia kori

Igoera fasean aurrealdeko postuetan ez badaude ere Arizmendiko neskek 3-1 hartu zuten mendean Zumaia kori. Garaipen horrekin Arizmendik 10 puntu ditu orain, eta seigarren daude. Intxaurdi izango da hurrengo kontrarioa.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Arantzabal taulapean, matea ere egin zuen zapatuan. | ARGAZKILARIAXXX



Barbero pasea ematen, sudurrean kolpe ederra jaso zuen Isasari. | J ARANTZABAL

LEHEN NAZIONAL MAILA

Bi 'final' irabazi dituzte; zortzi baino ez zaizkie geratzen MUKoei

- ▶ Tabirakoren kontra erakustaldia egin zuten MUKoek
- ▶ Jaitsiera fasean talde mordo jaitsiko da aurten

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

90-66

TABIRAKO BAQUE

FITXA TEKNIKO

MU: Arantzabal, Kortabarria, Gorka Arejolaleiba, Barrena, Ezpeleta, Barbero, M. Arejolaleiba, M. Atxa, Balanzategi, Lorenzo, Isasa, A. Atxa.

Tabirako: Gandarias, Onaindia, Igarza, Bereziartua, Gurrutxaga, Rodríguez, Onaindia, Zamakona, Peña, Otxandiano, Larrañaga.

Epaileak: Zumardi eta Parisir.

Bestelakoak: Lesionatuta egon ostean Unai Barrenak lehen saskiratzea kategorian. Txaloak.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak arto egoteko moduko partidua egin zuen zapatu iluntzean sailkapenean aurrealdean zebilen Tabirakoren kontra (90-66). Etxekoek aspaldiko partidu txukunena egin zuten zaleen aurrean, saskira-

tzeetan ikusgarri, eta are eta ikusgarriago defentsa lanean. Horrek aparteko indarra emango die geratzen diren zortzi finalerara begira, izan ere, aurten inoiz baino garestiago dago kategoriarri eustea.

Gutxienez, sei behera

Jaitsiera fasean jokatzeko dabilzan bederatzi taldeetatik seik kategoriatik galduko dute Lehen Nazional mailan. Horrek kale egiteko tarte txikia uzten du, baina gogorragoa ere izan daiteke, EBAn jokatzeko dabilzan Natra-Oñati eta EHU hortxe-hortxe dabilzako mailari eusteko borrokan. Horiek behera egingo balute, Nazional Mailan zazpi talde joango lirarteke zulora.

"Espero nuen halako partidua"

Partidu amaieran pozik zen MUKo entrenatzaile Josu Larreategi. Pozik aste barruko entrenamendu onek zapatuan eragin zuzena izan zutelako partidua erantzuten. Hala ere, oraindik zortzi final geratzen direnean goiz da ezer ospatzen hasteko: "Espero nuen halako partidua, oso ondo entrenatu dugulako aste barruan eta hori igarri egiten da. Gaur partidua on bat egiteko itxaropen

handiak nituen, eta bete egin da hori".

MUK denboraldi osoan gutxitan gozatu du zapatuan moduan. Aurrean jaurtitzaila oso oneko taldea zuen, eta Tabirako partiduan sartuta egon zen lehenengo zatian. Zuri-moreak aurretik izan ziren beti, baina oso tarte txikiarekin. Bigarren zatian, baina, jokoiratza etorri zen. Defentsan aspaldian ez moduan, Tabirakok jokalaririk gariak izan arren Arrasatekoenak izan ziren errebo-teak.

Presio itogarriaren eraginez laloi lapurretak egin zituzten, eta Arrasatekoen joko azkarrak ito egin zuen kontrarioa. Azken laurdenak gozatzekoak izan ziren. Aulkitik bultza eginez, jokaldi on bakoitza azkena izango balitz moduan ospatuz, etxekoei motz geratu zitzaizkien partidua. Lehia amaitzeko bi minuturen faltan, markagailuak 79-52 erakusten zuzenean etorri zen arratsaldeko jokaldia. Orduan kantxan ziren Gorka Arejolaleiba, Lorenzo, Balanzategi, Barbero eta Kortabarria eta guztien artean sortutako jokaldi azkarrak saski barruan amaitu zuen; kontrarioei gutxi falta izan zitzaizkien txaloka hasteko.

EBA

Partidu txarra jokatu Natra Oñatik mailari eusteko aukerak galdu zituen atzo Gasteizen

Oñatik 100 zale joan ziren partidu garrantzitsuan taldea animatzera

X.U. | ARRASATE

EBAn jarraitzeko ametsa kolpe batean amaitu zen atzo arratsaldean Gasteizen (77-66). EHU Araba Oñatik taldea baino hobea izan zen hasiera-hasieratik eta Igartuaren mutilek ez zituzten azken partiduetan erakutsitako hobekuntzak kantxaratu: "Gutxi dago esateko, gu baino hobek izan dira eta denboraldiko partidu garrantzitsuan gutako inork ez du neurria eman", adierazi zigun partidu amaieran atsekabetuta zegoen Iagoba Gamarrak.

Pena, azken partiduetan denboraldiko aurpegi onena erakutsi duelako talde oñatiarrak. Kanpoan jokatuakoa -nahiz eta galdutaldea ondo jokatzeko gaitasuna erakutsi zuen, eta joan den aste-ko etxeko garaipenak asko esan nahi zuen: taldea bizirik zegoela,



Mallabi, joan den astean. | JULIO CALLEJA

liderra mendean hartzeko gauza zirela eta geratzen ziren hiru partiduetan ahalegin guztiak egingo zituztela. Bada, gutxi iraun du ilusio horrek, diogun moduan,

hiru final horietako lehenengoan galdu egin dutelako.

Azken minutuetan erreakzioa

Atzoko kontrario EHU Araba ez zegoen opariak egiteko. Gasteiztarrak ere arrisku postuetan daude, eta euren dako ere hil ala biziko partidua zen. Hala, hasieratik hobeto kantxaratu ziren gasteiztarrak: "Ez dugu talde moduan jokatu eta bakarka ahalegindu gara min egiten. Ez dugu aurreko partiduetako itxura ona eman, eta gauzak diren moduan, merezita galdu dugu. Azken minutuetan, bizirik jarraitzeko nahiegatik-edo harrotasunagatik erreakzio momentu bat izan dugu eta markagailuko aldea bost puntura txikitu dugu". Baina alde hori segituan handitu zuten arabarrak.

SENIOR GIZONEZKOAK

Soraluce BKEk kolpe ona jaso zuen Astigarragan (86-53); MUK, berriz, ondo irabazi zion Easo Zaharri

Astigarragak garbi utzi zuen zergatik dagoen Gipuzkoako senior mailan bigarren postuan, bergarrarek kolpe ederra hartu zuten -eta euren kantxan (86-53). Porrot horrekin Bergarakoek sailkapenaren behealdean jarraituko dute. Lasaiago dago MUKo bigarren taldea; asteburuan 87-61 irabazi zioten Easori.

EMAKUMEZKOAK

Añorgaren kantxan galdu ostean Eskoriatzari izugarri estutu zaio sailkapena

Eskoriatzako neskek bigarren postuan jarraitzen dute, nahiz eta asteburuan 36-31 galdu duten Añorgaren kantxan. Markagailua ikusita, bi taldeetako inor ez zen fin ibili saskiratzeetan. Murkil liderrak aldea handitu du, eta orain hiru talde daude hamazazpi puntu batuta, eta horietako bat Eskoriatza da. Datorren astean Tecnunen bisita izango dute Eskoriatzan.

BIGAREN ETA HIRUGARREN SENIOR MAILA

Berrogeita bost puntuko aldeaz irabazi zion Aloñak Kostkasi; MU B taldeak azkena jarraitzen du

Gipuzkoako seniorren bigarren mailan Aloña Mendik errepasso ederra eman zion Kostkasi (85-40). Oñatikoei sailkapenaren erdian jarraitzen dute, 12 garaipen batuta. Seniorren hirugarren mailan, berriz, Mondragon Unibertsitateko hirugarren taldeak 42-60 galdu zuen Zarautzekoen kontra. Hala, sailkapenean azken jarraitzen dute, Oiartzungoekin berdinduta.

ESKUBALOIA

Bigarren zatian galdu zuen Bergara Soraluçek Deusto Loyolaren aurka (35-37)

Lehen zatian aurretik ziren etxeokak (17-15) baina 22 gol jaso zituzten jarraipenean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Senior mailako Bergarako esku-baloia taldeak 35-37 galdu zuen zapatuan Labegaraletan, Deusto Loyolaren aurka. Lehen zatian aurretik ziren Josetxo Muniategiren mutilak (17-15), baina bigarren zatian ez zuten asmatu mahoneroek.

Ez ziren batere fin ibili etxeokak jarraipenean. Horren adie-

razgarri, datu bat: 22 gol egin zizkion Deusto Loyolak. Zama horrekin nekez atera daiteke partidu bat aurrera. Nerbioek ere eragina izan zuten etxeok jokalarientan, jaitsiera saihesteko borrokan egoteak ez duela kolpe gorra jaso zuten bergararrek zapatuan eta hurrengo partiduan gauzak hobeto egitea baino ez da geratzen.

Muniategi entrenatzaileak sentsazio txarrarekin bukatu zutela esan zigun partiduen ondoren.

Hainbat baja zituen etxeok taldeak zapatuko partidurako: Mikel Plazaolaren lesioaz gain, Dani Sevillano eta Hodei Lenisoro ez daude jokatzeko azkenaldian. Lehen lerroko jokalaria dira eta taldeak igarri zuen haien

falta. Unai Orgaz ere ez dago ondo, eta zapatuan penaltiak jaurtitzeko bakarrik kantxaratu zen. Sei gol egin zituen Orgazek penalti puntutik. Gainerako gole-gileak hauek izan genituen: Gorka Uribe (3), Mikel Larrañaga (6), Gorka Ugalde (bost gol), Iñaki Manuel (3), Josu Urbina (7 gol), Eneko Unamuno (2) eta Josu Agirre (3 gol).

Domekan, Hondarribira

Hurrengo domekan, eguerdian, Hondarribian jokatu du Bergarak eta han ziurtatu beharko dute mahoneroek maila mantentzea. Bergarak lau puntu ateratzen dizkio une honetan Urdulizi (Bergararen jaitsiera eragin dezakeen talde bakarra) eta hurrengo jardunaldian Basauri-Urduliz neurketa erabakigarria izango da, Basauri ere borroka berean dagoelako. Bergarak bost puntuko alde ateratzen dio Basauriri.

Edozelan ere, maila mantentzea ziurtatzeko onena izango da Bergarak Hondarribian irabaztea. Horretarako, zapatukoa baino partidu hobe egin beharko dute bergararrek.



Gorka Ugalderen erasoko jokaldi bat zapatuan. Bost gol egin zituen bergararrek. | JOSETXO ARANTZABAL



Pello Olabarriaren gol bat zapatuan Iturripen. | JOSETXO ARANTZABAL

Ford Mugarrik erraz irabazi etxean

Ford Mugarri liderrak arazorik gabe irabazi zion El Pilar taldeari zapatuan, Iturripen. Ane Herrero zuzendutako taldeak 34-16 irabazi zuen eta arrasatearrek berriro utzi zuten argi aurten ez daukatela areriorik. Sekulako nagusitasuna erakutsi dute liga osoan zehar Ford Mugarrikoek. Tramiteko partidua izan zen zapatukoa Arrasatekoendako. Berdinketa bat izan ezik, gainerako 22 partidua irabazi ditu Ford Mugarrik Euskal Ligan.

MENDIA

Eski alpinoa eta mendi irteera Besaiderekin, asteburuan

Besaidek Formigalera eski alpino irteera antolatu du hurrengo astebururako, martxoaren 24 eta 25erako. Era berean, martxoaren 25erako Muskiz-Turtzioz mendi irteera iragarri dute. Izen-emateak gaur, bihar eta etzi, eguazte- na, 18:30etik 19:30era. Argibide gehiago 943 77 30 66 telefono zenbakian.

XAKEA

Arrasate-Arlutzek laugarren tokian amaitu du Euskal Ligan

Arrasate-Arlutz xake taldea laugarren tokian sailkatu da eta Euskal Ligako lehen mailan jarraituko du hurrengo denboraldian. Azken jardunaldian Iruñeako San Juan taldearen aurka 1,5-2,5 galdu zuten. Hain zuzen, Naturgas, San Juan eta Zornotza geratu dira arrasatearren aurretik.

ARKU TIROKETA

Arku tiroketa proba egin zuten domekan Arantzazu inguruan

Euskadiko Basoko Ligako hirugarren jardunaldia jokatu zen Zozo Pasen

E.M. | ARRASATE

Txantxiku Arkulariak taldearen eskutik, Euskadiko Basoko Ligako hirugarren jardunaldia jokatu zen atzo Zozo Pasen, Arantzazun. 58 arkulari batu ziren, tartean Ordiziako taldearekin aritzen diren Antonio Vidriales eta Iruñe Lacalle aretxabaletarrak. Txantxiku taldearen partetik, berriz, 11 lagunek jardun zuten: Rafa Ugarte, Jon Telleria, Iñaki Legaristi, Enaitz Ugarte, Xanti Ugarte, Iñaki Odriozola, Oihana Marzan, Martin Letamendi, Ander Letamendi, Kepa Urzelai eta Gorka Bikuñak.

Arku motaren arabera, bost kategoria bereiztu zituzten eta oñatiarren partetik Jon Telleria arrasatearrak eta Enaitz

Ugarte gazteak jardun zuten ondoen.

Larrabeen, apirilaren 14an

Hurrengo jardunaldia Larrabeen izango da, apirilaren 14an. Hurrengo domekan, berriz, Liga Norteko proba izango da Ordizian.

DATUA

58

TIRATZAILE

Atzoko saioan 58 tiratzailek hartu zuten parte. Txantxiku taldea ordezkatzuz, 11 lagun izan ziren Zozo Pasen.



Oñatiarren maila ona erakutsi zuten atzoko saioan. | JOSETXO ARANTZABAL

APUSTUA

Patric Makau atleta keniarraren errekorra birrindu egin zuen Iker Saizarrek Urkulun

Aramaiokoak, bizikleta gainean, ordu eta berrogeita sei minutuan egin zituen 42 kilometroak

XABIER URTZELAI | URKULU

Keniako atleta Patrick Makau (1985) maratoian duen errekorra (2.03:59) birrindu egin zuen Iker Saizar aramaioarrak zapatuan. Zirkuitua ez zen Berlinen, izan ere, Makau hor lortu zuen iaz Munduko errekorra ontzea, azken urteotan Haile Gebreselassie atletaren eskuetan egon zena. Diogun moduan, zirkuitua ez zen Berlinen, eta bai Urkuluko urtegia. Eta, Makau errekorra korrika eginez ezarri bazuen, Saizarrek bizikletaren laguntza izan zuen –mendikoa, abantaila izan zuen –mendikoa, abantaila esango du ez dela gauza bera, noski, baina gurako genuke Makau

Saizarren gorpuzkera sendoaz bizikletan ikusi.

Koadrila arteko apustu hau Maritxu Kajoi egunean sortu zen, bazkalostean –non bestela– eta hitzordua ondo prestatzeko nahikoa denbora izan badu ere, protagonista hilabete hauetan ez da larregi larritu. Konfiantzaz, bizikleta gainean duen gaitasunaz jabetuta, 2011 urtea hastearrekin batera Saizarrek –Berasaluzek lagunduta– itzuli gutxi batzuk egin zituen Urkulun, erreferentziak hartzeko. 42 kilometro egin behar zituen, Urkuluko urtegiari sei itzuli eta beste bi kilometro, eta diogun moduan, zapatu goizean haren aldekoen eta kontrarioen babesean birrindu egin zuen errekorra (1.46:19).

Lehenengo, lasai

Hitzordua hasi aurretik kontra-ko apustua egin zutenak mesfidati ziren, Aramaiokoak saio berdina lehenago egin izango zuen susmoa zuten, eta erreferentziak ondo hartuta. Hau da, egun batzuk lehenago ahalegina egin zuela, eta orduan egindakoa sekretupean gordeta. Apostua



Urkulun, hirugarren itzulian, lagunuen animuak jasotzen. | X.U.

antolatatu zutenek erreferentziak ondo hartuta zituzten, baina arrituta geratu ziren protagonistak erakutsitako sasoiak. Itzuli bakotza 20 minututik behera egin behar zituen; lasai egin zuen lehenengo, baina bigarrenean garbi utzi zituen gauzak –16 minutu pasatxoan egin zuen. Apustua kontratan egin zutenak Saizarren beherakada baten zain ziren, baina ez zen halakorik egon. Lagun talde baten ondoan egin zituen itzuli guztiak, eta buelta bakoitzean aldea handitu baino ez zuen egin, lasai bukatzeraino.



Saizar, diploma jasota. | X.U.

DATUA

1.46

ORDU

Saizarrek ia 20 minutuko aldeaz lortu zuen apustua irabaztea.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Elgoibar-Beti Gazte	1-2
Bergara-Oiartzun	1-0
Hondarribia-Behobia	0-0
Trintxerpe-Roteta	1-3
Mondra-Aurrera	1-2
Urola-Pasaia	2-3
Aretxabaleta-Aloña Mendi	1-0
Tolosa-Anaitasuna	2-2
Real Union-Berio	3-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	52	26
2 Real Union	48	26
3 Pasaia	48	25
4 Tolosa	47	25
5 Aretxabaleta	43	25
6 Oiartzun	42	25
7 Berio	41	26
8 Beti Gazte	39	25
9 Bergara	37	25
10 Aloña Mendi	34	25
11 Trintxerpe	31	25
12 Urola	29	25
13 Aurrera	29	26
14 Hondarribia	29	25
15 Behobia	25	26
16 Elgoibar	23	25
17 Mondra	20	25
18 Roteta	17	26

HURRENGO JARDUNALDIA

Oiartzun-Elgoibar
Behobia-Bergara
Roteta-Hondarribia
Aurrera-Trintxerpe
Pasaia-Mondra
Aloña Mendi-Urola
Anaitasuna-Aretxabaleta
Berio-Tolosa
Beti Gazte-Real Union

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA

Gasteizko Aurrera-Mondra 3-0

ERREGIONAL PREFERENTEA

Zestoa-Aretxabaleta B 2-3

Soraluze-Antzuola 1-0

1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA

Mondra B-Hondarribia 1-0

1. ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta C-Eibartarrak 1-2

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Añorga-Bergara 2-0

Aloña Mendi-Aurrera 1-1

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Santo Tomas-Mondra 2-3

GAZTEEN 1. MAILA, KOPA

Arizmendi-Eibartarrak 2-1

Eibartarrak B-Bergara B 2-1

Aretxabaleta B-Aloña Mendi B 2-0

OHOREZKO KADETEAK

Antiguoko B-Aloña Mendi 2-2

Hondarribia-Aretxabaleta 3-4

Bergara-Kostkas Miren Bihotza 1-1

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Arizmendi-Zumaiako 3-1

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

Soraluze BKE-Deusto Loyola 35-37

Ford Mugarri-Ei Pilar 34-16

EMAKUME SENIOR PREFEREN.

Aloña Mendi-Aiala Zarautz 21-22

FEDERAZIO SARIAK. GAZTEAK

Bergara-Elgoibar 31-27

FORU ALDUNDIKO SARIA.

Aloña Mendi-Eibar 29-34

Arrasate-Egia 26-25

Ormaiztegi-Soraluze Bergara 24-22

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELNETA

Uribeladea B-Arrasate ----

SASKIBALOIA

EBA MAILA

EHU Araba-Natra Aloña 77-66

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Tabirako Baque 90-66

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Easo Zahar 87-61

Astigarra-Soraluze BKE 86-53

SENIOR. BIGARREN MAILA

Aloña Mendi-Kostkas 85-40

SENIOR. HIRUGARREN MAILA

MU B-Zarautz Zast 42-60

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Añorga-Eskoriatza 36-31

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOA, BIGARREN MAILA

Joxe Mari taberna-Aretxabaleta 4-4

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena™

SASKIBALOIA

Mikel Arejolaleiba | Mondragon Unibertsitateko jokalaria

"Inork ez du guk baino min handiagoa hartuko maila galtzen badugu; borroka egingo dugu"

- ▶ Arrasatekoa izan zen zapatuko garaipenean jokalaria azpimarragarrietako bat
- ▶ Kintanaren hutsunea betetzeko, euskarri lanak utzi eta eskolta moduan dabil

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mikel Arejolaleibak (Arrasate, 1990), gainontzeko taldekideek moduan, txapela kentzeko moduko partidua egin zuen zapatu iluntzean Tabirako Baqueren kontra. Jaitsiera fasea hasi baino ez dute egin, baina bide onetik doaz. Iaz larri ibili ziren kategoriari eusteko, eta aurten ez da errazagoa izango, sei taldek-baliteke gehiagok- kategorialdako dutelako. Saskibaloiaz, taldearen egoeraz eta etorkizunaz egin dugu berba Arrasateko eskolarekin.

Saskibaloijokalaria, baina orokorrean kirolzale amorratu. Baita futbolzalea ere.

Bai, askotan pentsatu izan dut zergatik aukeratu nuen gaztetan saskibaloia eta ez futbola, esaterako. Gaztetatik saskibaloia gustatu izan zait, nire osabak saskibaloian jokatzen zuen (Fernando Moreton, Bergaran jokatu zuen) eta nahiz eta hasierako urteetan futbolean jokatzen nuen, taldea sortu zen momentuan saskibaloira pasa nintzen.

Jokalaria moduan zelan definituko zenuke zure burua?

Egia esan talde barruan nuen rol-a aldatu behar izan dut aurten. Iaz Gorka Kintanak egiten zituen eskolta lanak, eta nik euskarri moduan jokatzen nuen, hau da, taldea antolatzea izaten zen nire eginbeharra. Aurten, baina, Kintana Oñatira joan da jokatzerara, talde oso gaztearekin geratu gara eta ardura handiagoak hartu behar izan ditut. Jaurtitzaila moduan ere jardun behar izan dut, eta ez dut esango ona naizenik, baina tarteka sartzen dut bat edo beste [Barre].

Bestalde, esango nuke jokalaria azkarra naizela. Zorionez fisikoki ere ondo eutsi ahal izaten diot partiduari, eta kontraerasoan jokatuz min egin dezakedala uste dut. Badut taldekideak non dauden ikusi eta pase ona emateko gaitasuna, nahiz eta gaur moduan baloi batzuk galtzen ditudan. Kontrara, baina, odolberoa ere banaiz.

Partidu baten baino gehiagotan ikusi izan zaitugu bero-bero.

Bai, hori da nire alde txarra, batzuetan burua galtzen dudala. Ez dakit nondik datorkidan hori, baina nire anaia ere [Gorka Arejolaleiba] halakoxea da. Odolberokoa naiz, gutxi behar dut salto egiteko, nahiz eta aurten apur bat lasaitu egin naizela uste dudana. Talde gaztea izanda gazteenak ez garenak halakoak zaindu egin behar ditugu.



Mikel Arejolaleiba, zapatuan, partidu ostean. | x.u.

Izaera horrek, baina, badu bere alde ona. Esaterako, aulkian zaudenean ere partiduan sartuta zaude, etengabe animatzen.

Talde gaztea da eta jokalariek asko eskertzen dituzte animoak. Batzuetan txarra da odolbero izatea nire buruarekin haserretu egiten naizelako, baina bestalde, irabazteko grina hori lagungarri dela uste dut.

Lehen Nazional mailan zaudete, talde oso gaztearekin -batzabestekoa 20 urtekoa izango da- baina ia urte gogorren ostean aurten hobeto moldatu zarete.

Eta harrigarriena da baja asko izan ditugula. Lehen aipatu dut Kintanaren hutsunea, baina harekin batera Mikel Anasagasti kanpora joan da ikastera, gauza bera egin dute Unai Barrenak, Xabi Igoak... eta lesioek ere zeresan handia izan dute. Baina, lagun talde bat gara, momentu txarretan elkarri asko laguntzen diogula uste dut, bloke moduan jokatzen dugu eta poliki-poliki egoera bakoitza aurrera eramaten dugu. Garbi dagoena da, hala ere, zail dugula kategoriari eustea. **Aurten inoiz baino garestiago dago kategoriari eustea. Baina bigarren entrenatzaile Juan Carlos Davilak esan du partidu amaieran: "Bi irabazi ditugu, zortzi baino ez dira geratzen".**

Hori da gure helburua, geratzen zaizkigun partidu guztiak irabaztea, eta hortik aurrera gauzak

"Odolberoa naizen arren aurten iaz baino lasaiago nabilela uste dut"

"Talde gaztea izanda asko kanpora joan dira ikastera; lesioek ere ez dute lagundu"

zela geratzen diren ikustea. Partidu guztiak irabazten baditugu segurua da kategoriari eutsiko diogula. Denak irabazi barik, etxeok behintzat irabazi egin behar ditugu, eta kanpoan ere garaipenen bat edo beste beharoko dugu.

Josu Larreategi duzue entrenatzaile. Erasoan bai, baina defentsan egin duzue aurrerapen nabarmena.

Izan ere, berak esaten digun moduan Baskonian zegoenean defentsako jokoaz arduratzen zen bera, eta guri ere lan hori egiten

erakutsi digu. Beti esaten digu ahalegindu behar garela laurden bakoitzean 15 puntu baino gehiago ez jasotzen, eta gaur hortxe-hortxe ibili gara [Barre].

Taldeak gaur jarrera, konpromisoa, irabazteko nahia erakutsi ditu.

Lagun talde bat gara, eta kategoria hau galtzen badugu inork ez du guk baino min handiagoa hartuko, ondo dakigulako beheko kategorian ez dagoela halako mailarik, eta horrekin batera Nazional Mailan egoteko moduko taldea dugula uste dugulako.

Azkarren artean, azkarrena

Saskibaloia gertutik jarraitzen dutenek ondo dakite Mikel Arejolaleiba zelako denboraldia egiten dabilen. Taldeko azpimarragarrietako bat, euskarri moduan jokatzeari utzi eta eskolta moduan zukua atera dio barruan daraman jokoari. Oso azkarra, taulaperaino sartzea gustuko duen jokalaria, baina jaurtitzaila izatearen ardura ere hartu behar izan du. Berak onartu moduan, baina, baita odolberoa ere. Onerako eta txarrerako.



Mikel Arejolaleiba, zapatuko lehia. | JOSETXO ARANTZABAL

HEZIKETA

Geroz eta ipuin gutxiago kontatzen dira eta horrek dakartzan onurak galtzen doaz

Ipuinak oso baliagarriak dira hizkuntza garatzeko eta komunikatzen ikasteko

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Gure gizartea eratzeko orduan garrantzi handia izan zuten ahoz transmititutako istorioek. Gaur egun, ordea, askotan denbora faltagatik ala bestelako baliabideengatik geroz eta ipuin gutxiago kontatzen zaizkie etxeko txikienei.

Ipuinak barne mundura sartzeko atea irekitzen dizkiguten giltzak dira eta imajinarioaren esparruan ibiltzeko balio digu. Ipuinekin ezezagunerantz pausu bat eman, iluntasuna baztertu eta aukera anitzen bide erakargarria erakutsiko digute.

Komunikaziorako tresna

Ipuinak kontatzea komunikazioraren funtsezko tresna da. Orain entzun, orain hitz egin. Haurrak hori erreferentziak heldu batekin giro intimoa bizitzen duenean, elkar entzutearen eta partekatzearen onurak bizitzen ditu.



Haurrei ipuinak kontatzen. | ISPASTERESKOLA.BLOGSPOT.COM

Hori kalitatezko denbora da eta harremanaren zubiaren oinarrietan harriak jartzea bezalakoa da.

Gainera, etxeko txikienendako ipuin berdina askotan errepikatzea, aspergarria izan beharrean, oso gustukoa da.

Umeen adinera egokitutakoak

Ipuinak kontatzean hartzaileen adinera moldatu beharko gara. Txikienekin ipuinak ere ez direnak kontatuko ditugu. Urtea bete aurretik ere, haurrak arreta mantentzeko gai dira, eta komunikatzen ikasten dute.

Gasteizko Irakasle Eskolan Erasmus ikasleen izaera aztertu dute

Erasmus programan parte hartu nahi duten gazteak irekiagoak direla ondorioztatu dute

A.T. | ARRASATE

Mobilizazio programetan parte hartu nahi duten ikasleen eta atzerrira joateko asmorik ez dutenen profil psikologikoa aztertu du EHUko Gasteizko Irakasle Unibertsitate Eskolako ikertzaile-talde batek, eta desberdintasun zantzuak aurkitu ditu bi multzoen artean.

Lagina, 60 ikasle

Galdetegiez baliatu dira lana egiteko eta Irakasle Eskolako bigarren mailako 60 ikaslek osatu dute lagina: 2011-2012 ikasturtean Erasmus programan edo antzekoetan parte hartzeko izena emanda zuten 30 lagunek eta atzerrira joateko asmorik ez zuten beste hainbestek.

Irekiagoak

Ondorioztatu dute Erasmusera joan nahi duten ikasle potentzialak irekiagoak direla pentsatzeko moduari dagokionean, erantzukizun handiagoak hartzen dituztela eta beste kulturak aurreiritzirik gabe ulertzeko eta askotariko kultura testuinguruetan malguagoak izateko ahalmena dutela, besteak beste. Gainera, komunitate globalaren erantzule sentitzea, kultura aniztasunarekiko baikorra izatea eta norberaren ekarpenak mundua aldatzen lagundu dezakeela pentsatzea, maizago gertatzen da Erasmus ikasle potentzialak osatzen duten multzoan, azterketa horren ondorioek erakusten dutenez.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

Inkontinentzia eta azala adindunetan

Txomin Heriz

Erizaintza laguntza irakaslea

Gernu-inkontinentzia edo egin-kari-inkontinentzia pairatzen duten pertsonen arazo gehiago izaten dute ipurmasailaren, mokorraren, genitalen eta uzkiaren azalean.

Inkontinentziaren aurka, pixoihalak edo beste xurgatzaile batzuk erabiltzea eroso eta garbia izan arren, gorozkiak eta gernua gehiegizko denbora mantentzen dira azalarekin kontaktuan. Horrek kaltetu egiten du azala hezetasunarengatik beratu eta bigundu egiten delako.

Bestalde, azala denbora luzean garbitu eta sikatu barik gelditzen bada beste fenomeno biokimiko kaltegarri batzuk hasten dira gertatzen; gernuaren urea amonio eraldatzen da, azalaren pH-a igotzen da —karakterez azidoa galtzen du—, gorozkien gatzek eta entzima batzuk azala zuzenean narritatzen dute eta azalaren oreka

mikrobiologikoa apurtzen da. Horrez gain, garbiketarako ekin-tzetan azala kaltetu dezakegu nahi gabe; xaboi edo produktu desegokiekin edo azala indarrez igurtziz.

Eragile horiek guztiak hartu behar dira kontuan zainketa onak emateko eta dermatitisak saihestu ahal izateko. Dermatitis horiek askotan zailak izaten dira tratatzeko eta batzuetan konplikatu egiten dira; mikosiak, esaterako, maiz gertatzen dira, izan ere, hirugarren adineko pertsonen, umeek bezala, azal hauskorragoa eta ahulagoa dute.

Epidermisaren loditasuna galdu egiten da, azalaren elastikotasuna eta iragazkortasuna ere txikiagoak izaten dira, mantu azido babeslea ere galtzen joaten da... Hala, inkontinentzia behin betiko arazoa eta arazo konponezina bihurtzen bada ez gaude soilik arazo estetiko edo higieniko baten aurrean; azala ondo baino hobeto zaindu beharko dugu.

Oinarrizko zainketak

Badago harreman zuzena azalaren lesio-tamainarekin eta gernua edo gorozkiak azalarekin kontaktuan egon diren denborarekin. Beraz, zenbat eta azkarrago garbitu eta sikatu hobeto da azalarendako.

Garrantzitsua da xaboi neutroa edo azalak duen pH-a duen xaboia erabiltzea, eta ez kantitate handian —asko erabiltzeagatik ez dugu hobeto garbitzen—.

Urarekin ondo garbitu azala xaboi arrastorik ez uzteko. Oso garrantzitsua da, halaber, azala kontu handiz sikatzea. Igurtzi barik sikatuko dugu; kolpe txikiak. Egoera berezietan edo toleste-azalaren ile-lehorgailua erabil daiteke azala ondo sikatzeko.

Ondoren, larruazala hidratazko krema emango dugu; krema normal bat erabiliko dugu, baina gehiegi jarri barik. Erabateko absortziora arte emango dugu, eta ez dugu soberakinak kentzea ahaztuko.



Garbitzerakoan komeni da erabiltzea azala kaltetuko ez duten produktuak. | E. BALZATEGI

Alarma seinaleak detektatzen

Alarma seinale dira hazkura eta azala narritatuta edo gorrituta egotea... Erizainei deitzeko seinaleak dira azalean sekrezioak edo erroitzak agertzea, baita azala gorritzea edo mintzea ere. Azalean ez sekula alkoholun produktuak erabili, koloniak esaterako. Badaude produktu batzuk azal lehorreko garbiketarako egiteko, eta azala babesteko garbiketa egin ondoren erabil daitezkeenak. Ez dira egunero erabiltzekoak baizik eta azalak gehiegi sufritzen duen kasuetarako. Hori dela-eta komeni da erabili aurretik erizainari kontsulta egitea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

KULTURA



Eskertza moduan, Montblancekoek Sardana eskaini zioten publikoari. | MIRIAN BITERI



Arrasate Musikaleko Junior's taldekoak. | JOSETXO ARANTZABAL



Arrasatearrak eta kataluniarrak batera. | MIRIAN BITERI

Euskal Herri eta Kataluniako doinuak nahastuta Amaian

- ▶ Arrasate eta Montblanceko musika eskolek kontzertua egin zuten
- ▶ Elkartrukearen bigarren zatia apirilaren 20tik 22ra izango da

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Montblanc eta Arrasate artean *feeling* berezia dagoela agerian geratu zen zapatu eguerdian Arrasateko Amaia antzokian. Arrasate Musikaleko eta Montblanceko Josep Porter i Rovira eskolen arteko elkartruke musikaren harira, kontzertua eskaini zuten esandako talde biek; ez zuten huts egin eta emanaldia ikustera joan zirenak pozik irten ziren handik.

Maria Izagak eta Andoni Calvok aurkeztutako ekitaldian, etxeok izan ziren agertoki gainera igotzen lehenak: hain justu ere, Junior's taldeko neska-mutikoen Enio Morriconen *Chi Moi* kantua jo zuten; jarraian, Senior's taldekoen txanda heldu zen. Metalicaren *Nothing else matters* abesti ezaguna aukeratu zuten horiek; Maria Izaga aramaioarraren aho-tsak txundituta utzi zituen guztiak. Azkenik, Arrasate Musikaleko helduek hartu zuten lekukoa; Jurasikos taldekoek euskal musikagintzan mitikoa den kantua interpretatu zuten: Itoitzen *Lau teilatu*. Marta Gomezen ahotsa izan zuten horiek lagun. Arantzazu Idigorasen gidaritzapean jo zuten orain dela 12 urte sortutako hiru konbo talde horiek.

Bertsoak ezagutzen

Arrasatearrak eskainitako emanaldi laburraren ondotik, bertso-larritza gertutik ezagutzeko aukera izan zuten kataluniarrek. Izaga berak eta Paula Amilburu aramaioarrak bi herrien arteko batura goraiatu eta horretan musikak duen garrantzia azpimarratu zuten abestu zituzten bi bertsoetan.

Hortik aurrera, Conca de Barbera eskualdeko musikariak izan ziren agertoki gainean. Haizezko orkestrak zabaldu zuten errepertorioa. Stonen lau kantu jo zituen: *The Ash Grove*, *Country Gardens*, *St. Martins* eta *Dance Celtic*. Haizezko taldeak, oster, egitarauan

aurreikusita ez zeuden abesti bi eskaini zizkieten Amaian batutakoek: *Jurassic Park* eta *Hey jude*. Haizezkoen ostean, kamara bezala ezagutzen diren taldeekin gozatu zuten publikoak. Askotariko adineko bederatzita flauta-jotzailek Tschaikowskyren *El lago de los cisnes* jo zuten. Horien ondotik, Albert Vilalta piano-jolearen txanda izan zen. Hasiera batean, Marti Plana biolinista, Montserrat Sanahuja biolontxelo-jotzaile eta Albert Vilalta hirukotearen arteko emanaldia zegoen aurreikusita, baina partaide bat ezin izan zen Arrasatera etorri eta hortaz, Vilaltak bakarrik jotzea erabaki zuten.

Musika tresnen ostean, aho-tsak bihurtu ziren protagonista; Josep Porter i Rovira eskolako abesbatza bik ere parte-hartu zuten eta kontzertu berean. Musica abesbatzak *Soon and very soon* eta *Orfeo Negro* abestu zuten, eta gaztetxoez osatuta dagoen Bartok abesbatzak, oster, *Nkosi sikelel i' Afrika* eta *A white rainbow*.

Sardana

Musika emanaldia amaitu aurretik, etxeok Arrasate Musikaleko Big Band taldearen diskoa oparitu zieten kataluniarrei, eta baita Arrasateko historia jasotzen duen liburua ere. Josep Porter i Rovira musika eskolakoek ere "sorpresatxo" zuten gordeta: Amaian batutako guztiei beraien herrialdeko Sardana dantza eskaini nahi izan zieten; handik etorritako 53 musikari igo ziren agertoki gainera hori interpretatzera.

Orain arrasatearrei tokatzen zaie Montblanc bisitatzea; apirilaren 20, 21 eta 22ko asteburuan dute Arrasate Musikalekoek hara joateko asmoa; hain justu ere, herriko jaiak ospatzen dituzten egunetan doaz. Ziur ezin hobeto hartuko dituztela han.

MAICA VIDAL

JOSEP PORTER I ROVIRA
ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Entseatzeaz gain, bailara ezagutzeko aukera ere izango dugu"

Egubakoitz eguerdian iritsi zen Maica Vidal Arrasatera, Montblancetik iritsitako beste 52 lagunekin batera. Zapatu eguerdian tartetxo bat ateratu zuten guretzeko.



Nola pasa dituzue lehenengo orduak?

Bereziki entseatzen egon gara, kontzertua ondo gertatu behar genuen eta. Arrasate Musikaleko kideak ere ezagutzeko denbora izan dugu. Hemendik aurrera hasiko gara Arrasate eta inguruko tokiekiko gozaten.

Ze plan daukazue?

Bailara ezagutuko dugu. Elkarre gastronomiko batean bazkaldu ostean, arratsaldean, Arantzazuko Santutegia bisitatuko dugu. Bihar, oster, inguruan dagoen urtegi bat ikustera joango gara; oker ez banago, Urkulu dela esango nuke. Hango pasaia ederra dela esan digute. Eta bazkaldu ostean, Montblancera itzuliko gara.

Arrasatekoak doaz gero Montblancera...

Hala da. San Jordi jaietan etorriko dira; hain justu ere, herriko egunik garrantzitsuenetan datoz.

Dragoia komunean duten herriak

Biztanle kopuruari dagokionez, Montblanc Arrasate baino txikiagoa bada ere (7.000 biztanle pasatxo ditu), hainbat gauza dituzte herri biek komunean. Esaterako, alde zaharra dute biek, eta Conca de Barbera eskualdean dagoena harresi batez inguratuta dago. Horrez gainera, dragoi baten kondaira partekatzen dute herri biek. Kataluniako tradizioaren arabera, San Jordiren kondaira Montblancen gertatu zen. Horrek dio santuak dragoia hil zuela herrian dagoen San Jordi atari aurrean, eta han arrosa-landarea jaio zela, eta santuak arrosa bat eskainiko ziola printzesari; hain justu, dragoia elikatzeo aurreikusita zegoen printzesari.

Adinik ez Angiozarren trikiti eta pandero doinuekin gozarazteko

Ume zein helduek sekulako giroa jarri zuten egubakoitzean goraino bete zen Angiozarko saloian eskainitako kontzertuan

TXOMIN MADINA | BERGARA

Ez zen erraza izan egubakoitz iluntzean Angiozarko trikiti eta pandero-joleek eskaini zuten emanaldian lekua hartzea, auzotarrek goraino bete zuten eta Angiozarko saloia. Seguru gainera bat bera ere ez zela damutu kontzertura joan izanaz; musikariek sekulako giroa jarri zuten, eta ikusleak behin baino gehiagotan izan zituzten lagun jotako piezak abesten.

Ume eta gurasoak, batera

Emanaldiak iraun zuen ordubate pasatxoan, asko izan ziren jo zituzten piezak. Batzuk betiko doinu ezagunak, Xabier eta Iker anaiek jotako *Martxa baten lehen notak*, esaterako; beste batzuk ez hain betikoak, baina bai ezagunak, adibidez, trikitilari guztiek batera eskaini zuten *Ai se eu te pego*.

Argi geratu zen instrumentu bat jotzen ikasteko ez dagoela adinik; izan ere, hainbat guraso ere badabilta panderoa eta trikitia jotzen ikasten, eta euren emanaldiekin txalo zaparrada beroak jasoaz. Oñatitik joandako gonbidaturik ere izan zuten, eta hala, Agur eta Ezozik osatutako bikote oñatiarrak hainbat pieza jo zituen. Festa ez zen bukatu saloiko emanaldia bukatzean; kalean jarraitu zuen kalejirarekin eta ondoren, afariarekin.

Harkaitz Allur trikiti irakaslea pozik zegoen kontzertuak emandako arrakastarekin: "Beldur apur bat nuen, neska-mutikoa bost hilabete bakarrik darraztatelako ikasten, baina publiko ona izan dugu eta sekulako giroa egon da".



Adin ezberdinetako ikasleek taldeka ere jo zituzten hainbat pieza. | JOSETXO ARANZABAL




NORA PALMITANO
IKUSLEA

"Kontzertua oso polita izan da; harrigarria da hain denbora gutxian lortu duten maila eta giroa; hain talde heterogeneoa izanda gainera".



MILA EGUREN
TRIKITI-JOLEA

"Ondo joan da kontzertua, lehenengoa izateko... Beti gustatu izan zait trikitia, baina orain arte ez dut ikasteko aukerarik izan".



MAITE GALLASTEGI ETA ENERITZARIZMENDIARRIETA
TRIKITI-JOLEAK

"Kontzertua ondo egon da; hasi denean urduri geunden, baina behin jo dugunean, gustura geratu gara. Orain dela bost hilabetera arte ez genuen jotzen ez trikitia eta ezta panderoa ere, baina gustatu zaizkigun instrumentuak dira eta orain gehiago ikasteko gogoarekin gaude. Talde honetan egotetik zer gustatzen zaigun gehien? Bai musika eta baita taldean dagoen giroa ere".



Dark Code kontzertuan. | MIKEL GOMEZ

Metal doinuak, Bergarako gaztetxeko jaun eta jabe

T.M. | BERGARA

Bigarren edizioa izan zuen zapatuan Bergarako gaztetxean egin zuten Leni Metal Fest jaialdiak, eta argi geratu zen metal doinuek zaleak gurean egon badaudela, eta ez gutxi gainera.

Herriko Dark Code taldeari egokitu zitzaion gauari hasiera ematea. Etxanizek, Rodrik, Willyk eta Elorzak taldearen lehen diskoko, *Raise of Death* laneko abestiak jo zituzten, baita Gojira Baionako taldearen bertsiorik ere.

Bergararren ostean Iruñeko Dawn of the Maya taldearen zuzeneko gogorraren txanda izan zen eta Bermeoko OST taldeak itxi zituen kontzertuak. Gaua ez zen taldeen emanaldiekin amaitu, DJ Lenimetal (jaialdiko antolatzaile Asier Lenisoro) disko jartzaile lanetan ibili zen-eta. Heavy metal klasikoa jarri zuen, besteak beste Helloweenen edo Metallicaren piezak. Arrakasta itzela izan zuen sesioak eta domeka goiza ondo sartuta zegoela amaitu zen jaialdia.

"Abesti bizkorra da, alaia, lasterketak modukoa"



Bandako zuzendaria eta Lokatzako presidentea, estreinaldiaren ostean. | J.A.

TXOMIN MADINA | BERGARA

Begarako Udal Musika Bandak kontzertu berezia eskaini zuen atzo Udal Pilotalekuan. Berezia, herriko beste talde batek presentzia handia izan zuelako: Lokatza ziklismo taldeak, hain zuzen ere.

Izan ere Bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek ziklismo taldearendako abestia, *Lokatza* izenekoa konposatu du, eta atzoko kontzertuan estreinatu zuten. Bi aldiz entzun zen doinua, kontzertuaren hasieran eta bukaeran. Behin abestia estreinatutakoan, Bandako zuzendariak eta ziklismo taldeko presidentea, Migel Anjel Larrañagak, oroigarria bat eta abestiaren partitura elkartrukatu zituzten. Larrañaga gustura zegoen doinuarekin: "Abesti bizkorra da, alaia, apur bat lasterketak izan ohi diren modukoak". Lokatzaren ekin-tzetan abestia erabiltzeko asmoa ere azaldu zuen.



JOSETXO ARANZABAL

Kantaldi gaua Santa Anan

Oñatiko Zero Zabor taldeak egubakoitzean antolatutako kantaldian herriko musikariak izan ziren protagonistak. Top bakarlariak eman zion hasiera gauari, eta ondoren etorri ziren Juan Jose Unzilla eta Joxe Mari Anduagaren eta Kepa eta Ander bikotearen emanaldiak. Azken hauek Julen Romaratezabalaren bertso bati musika jarri zioten.

Laburbira dago etzi, 20:30ean, Bergarako Zabalogi aretoan

Topaguneak eta Bergarako Jardun euskara elkarteak elkarlanean egindako Laburbira izango da etzi, eguaztena, Zabalogi aretoan. Film laburren IX. zirkuitua 20:30ean hasiko da; azken urtean ekizitatiko euskarazko zortzi ikus-entzunezko ikusteko aukera izango da emanaldi horretan. Askotariko estilo eta izaerako piezak dira horiek: hain justu, fikziozko lau lan, animaziozko bi eta dokumental eta bideoklip bana egongo dira ikusgai Zabalogi aretoan.

Gaur zabalduko dute Oñatin Javier Gilen 'Invisibles' erakusketa

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, *Invisibles* delako erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Oñatiko kultura etxeko aretoan. Javier Gil madrildarrak egindako argazkiak ikusi daitezke horretan: Thailandiak bizi duen hazkunde geldiezinak sortutako arazoak jasotzen ditu formatu handiko hamahiru iruditan. Apirilaren 2ra arte bisitatu ahal izango da argazki erakusketa hori honako ordutegian: 18:00etatik 20:00etara bitartean.



Oñatiko Ganbara abesbatzako kideak Berrigoitin ateratako irudian. | GANBARA ABESBATZA

Aitor Biain: "Ez genuen espero irabaztea; exigentzia musikal handiko lehiaketa da"

'A Capella' lehiaketa irabazi du Oñatiko Ganbarak; denera, sei sari lortu ditu

MIRIAN BITERI | OÑATI

Sariz beteta itzuli dira Oñatiko Ganbara abesbatzakoak asteburuan Berribeitin (Nafarroa) egin den 'A Cappella' lehiaketatik. Sei sari lortu dituzte: Polifonia modalitatea irabazi dute, eta folklorean, bigarren geratu dira. Bi horietan lortutako puntuen batzbestekoa

egin dute, eta gehien lortu dituen taldea izan da irabazlea. Oñatiarrak irabazi dute lehiaketa.

Horretaz gainera, publikoaren eta zuzendari onenaren saria ere lortu dute Ganbarakoek. Euskal abesti onena interpretatzeagatik ere sarituak izan dira, Josu Elberdinen *Segalariak* kantuagatik.

Pozik topatu ditugu abesbatzakoak. Horrenbeste sari jasotzea ez zutela espero aipatu ostean, Aitor Biain zuzendariak honakoa jakinarazi digu: "Lehiaketa berezia da, bi modalitateetan jokatzeko delako. Normalean, bost bat pieza prestatzen ditugu, eta oraingoan dena bikoitza zenez, bederatz

pieza eroan ditugu. Exigentzia musikal handiko lehiaketa da, eta denbora asko eman dugu hori prestatzen". Horrez gainera, zuzendari onenaren saria ez zuela espero, eta berarendako "sorpresa" handia izan dela esan du.

"Soinu ona"

Madrilgo Coro Lux Aeterna eta Vokalars eta Valentziako Grupo Coral Concordiaren kontra lehiatu dira. Oñatiarren lanak oso kritika onak jaso ditu. Horren harira, abesbatzaren "soinu ona" izan du kontuan lehiaketako epaimahaiak, "publikora oso ondo iristen zena".

AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Mondeo 1.8 TDCI 19.800 €
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- Ford Focus TDCI 115 ZP 8 abiadura 17.500 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- Ford Focus TDCI 140 ZP 19.800 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Focus TDCI 110 ZP 10.500 €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- Ford Kuga TDCI-4W 140 ZP 24.400 €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 13.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km
- Nissan Pathfinder XSE TDI 174 ZP 14.500 €
2005 | Diesela | Grisa | 130.000 Km
- Toyota Land Cruiser UX 170 ZP 18.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 120.000 Km



19.950 €

> Renault Laguna tom tom dci 130 zp
2011 | Diesela | Txuria | 0 Km

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

- CLIO 1.2 75 zp 9.750 €
2010 | Gasolina | Zilarra | 18.000 Km
- Renault Clio Gran Tour Dci 90 12.950 €
2011 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Renault Laguna Dci 130 zp 14.950 €
2008 | Diesela | Zilarra | 32.000 Km
- Renault Fulence Dci 105 zp 16.150 €
2009 | Diesela | Gorria | 14.000 Km
- Renault Megane Dyn Dci 110 zp 15.350 €
2010 | Diesela | Grisa | 25.000 Km
- Renault Megane G.T Dci 110 zp 20.250 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km
- Renault Megane Coupe Dci 130 zp 17.950 €
2009 | Diesela | Beltza | 15.000 Km
- Renault Megane Cabrio Tce 130 zp 20.750 €
2010 | Gasolina | Txuria | 1.000 Km
- Renault G.Scenic 7 Plazas Dci 130 zp 18.850 €
2011 | Diesela | Zilarra | 28.000 Km



10.300 €

> Citroën C3 1.4HDI Attraction
2011 | Diesela | Gris argia | 15.500 km

CHAPIME
Citroën
Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

San andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

- Citroën Berlingo 1.6 HDI 110 XTR Plus 14.500 €
2010 | Diesela | Txuria | 41.820 Km
- Citroën Berlingo 1.6 HDI 90 SXMult 13.700 €
2011 | Diesela | Gris argia | 12.991 Km
- Citroën C4 1.6 HDI Cool 110 FAP 11.000 €
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 Km
- Citroën C4 1.6 HDI Cool CMP 110 11.500 €
2010 | Diesela | Gorri iluna | 36.200 Km
- Citroën C4 G.Picasso 1.6 HDI Seduction CMP 110 17.500 €
2011 | Diesela | Morea | 25.950 Km
- Citroën C5 2.0 HDI Business 17.300 €
2010 | Diesela | Gris argia | 34.700 Km
- Citroën C8 2.0 HDI Premier 18.800 €
2010 | Diesela | Txuria | 34.000 Km
- Citroën C8 2.0 HDI Seduction 22.800 €
2011 | Diesela | Gris iluna | 16.900 Km
- Citroën DS4 1.6 e-HDI Design STT 21.200 €
2011 | Diesela | Urdin iluna | 2.000 Km
- Hyundai Trajet 2.0 CRDI 7.300 €
2005 | Diesela | Urdin argia | 95.400 Km

SORTUKO DIRA BESTEAK XABIER LETE GOGOAN

**EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS**

ARRASATE Martxoak 31
AMAIA ANTZOKIA 19:00etan



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



GURE MUSIKA TALDEAK

ARKADA
SOCIALArkada Social taldekide berriekin *promo* argazkian. | ARKADA SOCIAL

"Zaleei, taldearen aldaketak zuzenean entzutea gustatuko zaiela uste dugu"

- ▶ Barikuan aurkeztuko dute Arrasateko gaztetxean disko berria
- ▶ Haritz Harregüyrek grabatu dute hirugarren lana

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Talde arrasatearra *Beste istorio bat*-ekin dator. 2006an formazio originalak agur esan bazuen ere, berriro dugu Arkada Social berri-tua errepidean, zuzeneko gose. Hodei Beitia taldekidearekin egin dugu hitzordua Dat tabernan. **Zergatik erabaki duzue itzultzea?** Kontzertuak emateko deika hasi ziren; beroaldi batean pare bat kontzertu egin genituen; geroz eta gogo handiagoa piztu zitzaigun, gazte asko dago zuzenean ikusteko aukera izan ez duena-eta. Hala, zerbait grabatzera animatu

ginen; pixkanaka, zortzi abestiko CD bat egin dugu.

Kontzientez zarete zaleen erantzuna berdina ez dela izango?

Bai; agur kontzertu bat egitean jendeak badaki ez duzula gehiago jo behar. Gure kasuan, taldearen formazio originalaren agurra izan zen; hasierako bost horiek ez dugu gehiago jo behar; bikote baten antzera da: hasi, utzi...

Bigarren gitarra sartu duzue. Aldaketa ekarri du musikalki.

Taldeari beste gitarra bat falta zitzaion; punteatzeak egiteko orduan hutsunea igartzen genuen.

Hala, Mikel Arriaran dugu gitarr-jotzaile berria; korduak ere egiten ditu. Bi gitarrarekin joko handiagoa dugu, bai punteatze-tarako, eta baita korduak egiteko ere.

Des-kontrolen ukitua duzuela ere esan dizute.

Entzun duten batzuek hori esan digute. Azken batean, nire ahotsagatik askok egin dezakete konparaketa. Baina Des-kontrolen hiru ahots gara. Arkadan, Arriren ahotsak nirearekin beste ukitu bat ematen dio. Uste dugu taldearendako hobia izan

dela aldaketa, zuzenean zaleei gustatuko zaiela, gainera!

Euskarazko kantu gehiago oraingoan, beste diskoekin alderatuta. Lau abesti euskaraz egin ditugu eta beste lau gaztelaniaz; egiten hasi ginen eta horrela irten zaigu, konturatu gabe.

Zer kontatzen duzue?

Ados ez gauden gauzak salatzen ditugu, baina Arkadako letretan adiskidetasuna oso ohikoa da. Bi kantu zahar ere grabatu ditugu. Abesti horietako bat kontzertuetan jotzen genuen arren, inoiz ez genuen grabatu. Hala, abesti hori eta beste abesti bat ere grabatzea erabaki dugu.

Haritz Harregüyrek grabatu duzue hirugarren lana.

Harekin lan egindakoa naiz Des-kontrolen azken diskoa grabatzerakoan. Ezagutzen nuen eta uste dut bere arloan orain dagoen onena dela. Harekin lan egitea oso erraza da. Urtarrilean grabatu genuen eta ondoren masterizazio lanak Jonan Ordorikarekin egin ditugu.

Diskoaren aurkezpena barikuan da, etxean egingo duzue.

Bai, Arrasateko gaztetxean aurkeztuko dugu Rat-zinggerrekin eta Los Cuatro Cuarenta Arrasateko debutari gazteekin batera. Gure asmoa da zuzenekoak ematea orain; deika badabilta eta aprobetxatu egingo dugu *Beste istorio bat* diskoa zabalteko. Abesti berriekin batera zaharrak ere jotzen ditugu zuzenean. Ea gazteria gustura geratzen den eta zuzenekoaz disfrutatzea aurrera duten!

ZERTZELADA



'BESTE ISTORIO BAT'

Estiloa: Punk, rock...

Egilea: Arkada Social

Argitaletxea: Mauka.

Iraupena: ??.

Amorrua eta melodia punk gitarreran

Beste belaunaldi batekoa naizelako deigarria iruditzen zait Arrasateko talde honek duen jarraitzaile kopurua. Hodeien ahotsa asko gustatzen zait, nortasuna dauka eta oso indartsua eta 'makarra' da. Lan honetako bost kantu bakarrik eskuratu ditut eta 'Borroka amaigabea' indartsua nabarmenduko nuke. Euskarak presentzia handiagoa hartu du eta igartzen da estudio on batean grabatu dutela, indarra duelako. Tarteka 80ko hamarkadako punkaren garrantasuna eta erritmo gogorak (Cicatriz, Vomito...) gogorazi didate, baita Alemaniako punka eta Social Distortion ere, baina bada melodiarentzat eta punteo eta gitarra rockeroagoentzat ere lekua. Aurrera egin dutela uste dut.

IKER BARANDIARAN

Bilatzailean aldaketa handiak egingo dituela iragarri du Google-ek

- Terminoarekin lotutako informazio osagarria emango du
- Galdera zehatzak erantzungo dira, giza adimena imitatu guran

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Tarteka eta urratsez urrats baina Google-en bilatzailea etengabe ari da aldatzen. Erabiltzailea benetan bilatzen dabilenari gehiago egokitu gura dituzte emaitzak eta bilaketa semantikoa delakora gerturatuko dira, terminoekin lotutako loturen zerrenda ematearekin batera, termino

horrekin lortura daukaten bestelako emaitza eta informazioak ere emanda. Adibidez, munduko lakurik sakonena bilatuz gero, esaldi hori ala esaldi horretako hitzak dauzkaten emaitzak ematen ditu orain Google-ek, errelebantziaren arabera (logaritmoa) antolatuta. Bilaketa semantikoa-ekin, emaitza horiez gain, sako-

neraren datuak, ur kopurua, temperatura, kokatzen den tokia-ri buruzko informazioa eta antzerako lakuak ere agertuko lirake emaitzetan. Bi emaitza mota emango ditu beraz bilaketa sistemarekin Google-en bilatzaileak, batetik, orain arte moduko loturen zerrenda eta, bestetik, bilatutako terminoekin lotutako

bestelako emaitza osagarriak eta informazio gehigarria. Bilatzailean galdera zuzenak idazterakoan jasoko dira emaitza horiek eta Google-etik diote bilaketa guztien %10etik %20ra bitartean izango direla mota horretako bilaketa-ak.

Helburua da, azaltzen dutenez, gizakiak berez galdera bat egite-

rakoan erantzuna aurkitzeko egiten duen prozesu bera imitatzea eta horregatik emaitzak, zerkusia duten bestelako datuak eta bilatzen den horren inguruan dauden debateak erakutsiko ditu Google-ek aurki.

Bilaketa pertsonalizatuak

Bilatzailea zorrotzeko helburuarekin urtarrilean bertan Google + sareko emaitzak ematen hasi zen bilatzailea. Hurrengo urratsa bilaketarekin lotutako atributuen bilaketa izango da.

Hala eta guztiz ere, Google ez da bilaketa semantikoan aitzindaria eta aurretik Bing bilatzeak ere prozesu antzerakoa darabil. Wolfram Alpha delako bilatzaile zientifikoa da bilaketa semantikoaren jauna eta jabe eta erabiltzailearen galdera zehatza erantzun zehatzak emateko gauza da, lotura hutsak eman beharrean.

'Interneten etsaien' zerrenda atera dute zentsuraren aurkako nazioarteko eguna dela-eta

Frantziak eta Australiak zerrendan jarraitzen dute zaintza zorrotza ezartzen dutelako

J.B. | ARRASATE

Martxoaren 12an izan zen Interneteko Zentsuraren Aurkako eguna eta adierazpen askatasunari kontu egiten dion Mugarik Gabeko Erreportariak erakundeak urteroko zerrenda kaletatu du. Herrialde berri bi gehitu dizkiote zerrendari Bahraingo Erresuna (Pertsiar golkoan) eta Bielorrusia eta beste bi kendu: Libia eta Venezuela. Frantzia eta Australiak zerrendan jarraitzen dute ezartzen duten zaintza zorrotzarengatik. "Interneten etsaien" zerrendan gehienak Ekialde Hurbileko eta Asiako herrialdeak dira eta zerrendara batzen berrien artean

Bahraingo kasua da larriena, Facebooken esandakoengatik erbesteratu baitzituzten iaz zenbait herritar eta beste asko atxilotu erret-familiari publikoki eginiko kritikengatik. Bielorusiari dagokionez, Txina, Ipar Korea, Syria ala Saudi Arabia dauden mailan kokatzea ere esanguratsua da. Interneteko adierazpen askatasuna egoerarik larrienean dagoen herrialdeak dira horiek baina badaude beste herrialde asko sarea zaintza oso zorrotzaren pean daukatenak: Egipto, Sri Lanka, Hego Korea, Tunisia bai, baina Australia eta Frantzia ere badaude hartu.

Interesen orriak sortu ahalko dira Facebooken


Twitterrek aspaldik ematen duen aukera batekin dator Facebook, interesen araberrako zerrendak sortzea, hain zuzen. Intereseko albiste iturri eta jarioetara harpidetuta, orriak antolatu ahalko ditu erabiltzaileak eta guztiak profil bakarrean batu. Orri horretan geratzen dire eguneraketak erabiltzaileari bere *feed*-ean agertuko zaizkio. Horrekin batera Facebookeko orri eta profil guztiek izango dute aurrerantzean interes-orri horietara gehitzeko botoia. Orri horiek editatu eta partekatu egin daitezke erabiltzaileak hala gura badu.

iPad berriaren erreserbak agortu egin dira

Dendetan eskuragarri egon baino lehenago, jada, arrakasta komertziala izan du iPad tabletaren azken bertsioak nahiz eta aurkezpenaren ostean zirrara larregi zabaldu ez. Estatu Batuetan, Erresuma Batuan eta Alemanian barikuan ipini zuten salgai baina erreserba *on-line* egin zutenek gehiago itxaron beharko dute izakin guztiak agortu zaizkielako. Apple-etik diote izandako erreserba eskaria inoizko handiena izan dela. iPad 2ari dagokionez, oraindik salgai jarraituko du baina 100 euro merkatu dute modelo zaharra.

Diseinua aldatu eta profilak nabarmenago, Pinteresten

Facebooken Timeline berriaren antz handia dauka diseinu berriak, sare sozialetan lehiatzeko



Pinteresten profil berria. | TRECEBITS

J.B. | ARRASATE

Azken hilabeteetako arrakasta izugarriak eman dion aukera ezin galtzen utzi eta Pinterestek dagoeneko hartu du espero zen urrats estrategikoa. Erabiltzaileen profilak sortu ditu eta honela, sare sozial nagusiei hortzak erakusten hasi da. Gauza jakina da dagoeneko Pinterestek Twitter berak baino trafiko erreferentzial handiagoa duela eta orain badi-rudi Facebook daukala jo-puntu-tuan

Orain bi urte sortu zutenetik lehen diseinu eraldaketa garrantzitsua da orain egin dutena. Profila goikaldeko alderik aldeko zutabe baten kokatu dute eta aldumei leku gehiago utzi. Aldaketa honekin erabiltzaileek elkarren artean harremanetan jartzeko erraztasuna izatea bilatzen da eta Facebook estreinatu berri duen Timeline-aren antz handia dauka, erabiltzaileari erreferentzia gehiago emanez.

Encyclopædia Britannica-k paperari agur esan dio

Sareko bertsio digitalaren harpidetzekin soilik jarraituko dute aurrerantzean



Entziklopediaren paperezko bertsioa. | THEATLANTIC.COM

J.B. | ARRASATE

1768 urtetik argitaratzen da munduko entziklopediarik eza-gunena baina aurrerantzean on-line bertsioan soilik zabalduko da. 1990eko edizioak Estatu Batuetan 120.000 kopia saldu zituen baina 2010ekoak 8.000 besterik ez. Azken edizio horrek 1.074 euro balio zituen. Irakurleak, baina, prest leudeke on-line harpidetzak ordaitzeko eta gaur egun, hain zuzen, milioi erdi dira harpidedunak.

2010 urtean enpresa argitaratzailearen diru-sarreraren %1 besterik ez zein izan paperezko bertsioak ekarritakoa. Edizio digitalaren harpidedunak, ostera, 500.000 dira eta 70 dolar ordaintzen dituzte on-line edukienengatik. Harritzekoa da hala ere Encyclopædia Britannicak horren luzaroan eusti izana, Microsoften Encarta entziklopedia digitalak aspadi utzi zion-eta argitaratze-ri, Wikipediak eta Internetek hiltzera kondentatuta.

JAIOTAKOAK



Noa Olivenza Iturricastillo

Aretxabaleta. 3,150 kilo. Martxoaren 12a. Gurasoak: Ainhoa eta Sergio. Argazkian, Noa gurasoekin.



Unax Beistegi Otaño

Bergara. 2,880 kilo. Martxoaren 5a. Gurasoak: Maite eta Eneko. Argazkian, Unax sehaskan.



Izadi Salegi Martinez

Bergara. 3,020 kilo. Martxoaren 10a. Gurasoak: Julia eta Zugaitz. Argazkian, Izadi aitarekin.



Maite Jimenez Samaniego

Bergara. 2,900 kilo. Martxoaren 14a. Gurasoak: Amaia eta Julian. Argazkian, Maite aitarekin.



Irene Maestre Sanchez

Bergara. 3,860 kilo. Martxoaren 16a. Gurasoak: Isabel eta David. Argazkian, Irene sehaskan.

Jaiotzak

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta Interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENArekin ordezkaritza batera.



Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Amets Agirre Osa

Elgeta. 3,790 kilo. Martxoaren 15a. Gurasoak: Maider eta Anartz. Argazkian, Amets sehaskan.



Haizea Biteri Nafarrate

Eskoriatza. 3,100 kilo. Martxoaren 15a. Gurasoak: Maider eta Iñigo. Argazkian, Haizea aitarekin.



Yara Ben Aicha Sidi

Soraluze. 2,997 kilo. Martxoaren 15a. Gurasoak: Fatima eta Mustapha. Argazkian, Yara aitarekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Mentua	NEGUAN	Enberraren mamia
	Musika tresna	Zangoaren atala	Infusio mota
	Ez eskuin		
	Orbitak hasieran du		
Galtzerdi	Baratze		Bokala
Dirua ateratzeko	Semearen arreba		Bizkaieraz, atera
			Alderantziz, erne!
Baztertu			
Eskaini		Oso, erabat	
		2	
Igarobide		Ez emea	
Senidea		Bokala	
			NEGUAN (goitik dator)

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

K	V	U	V	I	V	N	V
V	R	R	V	I	B	I	V
S	V	R	V	A	V	P	O
U	L	V	R	O	B	L	O
V	L	E	T	A	X	T	
A		U	R	O	T		
R		E	K	E			
U		S	I	X			
Z		E	T				

BILA-BILA 7



ESKELA EGUBAKOITZEAN NAHIZ ASTELEHENEAN ARGITARATZEKO, DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO: 943 25 05 05.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro. Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99 e-posta: euskalduna@harrespil.net

URTEURRENA

Manuel Muñoz Gomez



2011ko martxoaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza asteazkenean, martxoaren 21ean, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian izango da.

Elizkizunera joango zaretenoi alde aurretik eskerrak haren ama, emazte, seme, anai-arreba, loba eta lehengusuen izenean.

AI, ENE!

Eta auto hori nola heldu da horra?

Galderari erantzuteko, bi aukera: itsasora erori eta itsasbazterrera eroan dute olatuek edo gidariak lo hartu du itsagora zen bitartean. www.sarda.es




AHOBERO

"Espainiak duen 'guay'-ena, beste inon ez dagoena, emakume espainiarrak dira"

JOSEP XORTO | MUSIKARIA

Zeresan asko eman du egunotan Loewe luxuzko produktuen etxearen iragarkiak. Madrilgo moderno koadrila bat da iragarkiko protagonista, eta esaldi hori da bertan entzun daitekeen gogoeta sakonenetakoa. Pentsa gainerako adierazpenak nolakoak diren... **Loewe etxearen iragarkia**

EGURALDIA



Max. 10°

Min. 3°

Neguko azken egunean, zaparradak botatzeko aukera eta giro freskoa izango dugu. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-03-358

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Joan Mari Irigoien Altzan jaioa eta gaztetan Sansen jokaturakoa, 1975ean ikusi zuen argia bere lehen eleberriak. Orduz geroztik, atsedean handirik ez du izan Irigoien sormenak. | TXOMIN MADINA

"Lehen, erbi bat nuen mihi puntan; eta orain, dortoka bat"

1. Ikasketaz ingeniaria, futbol jokalaria ohia; ez dira idazle estereotipoaren ezaugarri ohikoak...

Ingeniaritzak zehaztasunaren zentzua eman zidan; futbolean, noiznahi bihurtzen nuen jokoa jolas. Eta prosaren zehaztasuna eta hitzekin jolasteko grina oso inportanteak ditut idazle gisa: funtsezkoak.

2. Liburu luzeak: horrela planteatu dituzulako ala horrela irten zaizkizulako?

Liburu bakoitzak bere planteamendua du. Gero, beharren arabera, luzeagoak edo motzagoak irten daitezke. Hala ere, inportantea ez da luzeagoa edo motzagoa izatea, ona edo txarra baizik. Literaturak ez du zerikusirik guinestarren errepublikarekin.

3. Pertsonaien psikologian sakontzeko, nondik hasi?

Duda barik, hasieratik, kar-kar-kar...

4. Eta zure psikologia ezagutzeko, zure poemetara jo behar?

Nik esango nuke, similitudine bat erabiliz, gizakiok izatera poliedroa dugula, konplexu bezain konplikatua. Gu, izan ere, gu gara, baina gure mozorroak ere bagara, eta gure mozorroen mozorroak, eta gure mozorroen mozorroak, eta abar. Euskaldunon kasuan, baina, guztiz sinplifika daiteke korapilo hau, ETA baitago mozorro guztien azpian, Garzon mozoloak ongi esan zuen bezala...



JON POZO

5. Zure hainbat lan e-book formatuan daude. Etorkizun ekidin ezina? Bai, baina liburu tradizionalak ere iraugo du.

6. Nola eragin dio zerbaki gorritz betetako krisiak letren munduari? Krisiak, krisia izateaz gain, apokaliptiarekin errimatzen du: hori du txarra hitz horrek, zoritxarrez...

7. Ikusiko dugu inoiz euskal idazlerik Nobel sariarekin?

Ez nago, printzipioz, sariaren kontra, nahiz eta batzuen arautegia berreetertzea egoki izango litzatekeen. Nik ere irabazi ditut batzuk: lehengoa, gainera (Irun Hiria saria), ezin hobeto etorri zitzaidan, neure buruan konfiantza hartzeko idazle gisa. Guztiaz ere, neurritz kanpo

ikusten dut nik hainbat ekitaldiren ematen zaion proiektio soziala: Oscarrak, Goyak eta Patxi Lopezen sermoiak...! Egia esanda, euskal literaturari askoz hobeto etorriko litzaiok plangintza orokor eta serio bat, herriko kultur taldeek eta instituzioek landu eta bultzatua, Nobel sari bat baino.

8. Disartria duzu bidelagun. Nor eta nolako da hura?

Lehen, erbi bat nuen mihi-puntan; eta orain, dortoka bat. Hori da, labur esanda, disartria.

9. Nola daroazu haren konpainia?

Oraingoan, ongi. Bera guztiz dago maiteminduta nitaz, baina nik pixkanaka joan behar dugula esaten diot. Poliki. Konfiantza pixka bat ere hartzen hasia naiz, egia esan. Lehen, adibidez, Disartria anderea deitzen nion, errespetu handiz. Orain dela hamar bat egun, baina, Dixartri deitu nion, eta bera, konforme. Bisita batzuk ere hartzen ditugu batzuetan: atzo, esate baterako, Eufraxi eta Paxkaxi etorri zitzaizkigun. Hurrengo egunetan, berriz, Dalmaxi eta Pankraxi eta Engraxi eta abar etorriko dira. Zerrenda, izan ere, oso luzea da: azkenekoa Eutanaxi ote den.

10. Uztokotan, zerk utziko luke mutu Joan Mari Irigoien?

Berri honek, adibidez: "Espiritu Santua Bilboko udaletxera jaitsi, eta Azkuna jauna euskaraz hitz egiten hasi da". Buruan dudak ile bakana ere kolpetik eroriko litzaidake; burua bera ere bai, ausaz...

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Arma guztiak desegingo nituzke"

"Arma guztiak desegingo nituzke, nahiz eta horrek erabaki mingarri batzuk hartzea ere bideratuko nindukeen: Pepe Madrilgo futbol-jokalaria, adibidez, bi hankak moztu beharko nizkioke. Edo potroak, auskalo".

BIHARAMUNA



IÑIGO SOLUPE ZULAIKA

Zenbait kontraesan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara zuzendaritza nagusiak euskararen erabilera sozialaren esparruan lanean ari diren elkarte, erakunde eta norbanakoentzat argitaratzen dituen diru laguntzen murrizketa iragarri du. Ba al dago Aldundiaren eta *Mondraberr*-k bere jardura eteteko erabakien arteko loturarik? Monterroneko lorategian dagoen pankartaren atzean oraindik ikusi ez duguna Martin Garrantza da.

Bitartean, Patxi Lopez lehenakariak euskara ikasten dihardu 3 urtez jarraian, herritarren kontura (125.000 euroko kontua); dioenez, ahalegintzen da ikasten nahiz eta *pirak* egin. Maila motela izan edo ez, datoen hauteskundeetako mitin politikoaren diskurtsoak euskaraz irakurriko ditu.

Baina ez gaitzen kezkatu euskaradunok, Etxepare Euskal Institutuak, Madrilen, *Euskarari gorazarre* jardunaldiak antolatu ditu eta Humboldt-en *euskara Iberiar penintsularen jatorrizko hizkuntza* teoria saltzea edota madrildarrak euskalduntzea izango dute, agian, helburutzat.

Hau da markie! Eta gu, euskaldunok, etxeko lanak ein barik! Eskerrak, behintzat, *Goiena* paperak 500 zerbaki bete dituen! Zorionak, *Goiena*!

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

